

# ASTELEHENKO Goienkaria

2009ko maiatzaren 25a > Astelehenetako VII. urtea > 234. zenbakia > Euro 1

www.goiena.net

"Biharamuneko pilula ez da eguneroko antisorgailua, larrialdietaarako baizik"

Alaitz Pagaldai  
Ginekologoa > 08



G2a

Ama Say eta  
Deabruak  
Teiletuetan > 32

ARRASATE  
Herritarrek erabakiko dute Biteri  
plazari zer erabilera eman > 15

BERGARA  
Jardun arduratuta, Arrizuriaga  
laga beharrean daudelako > 16

LASTERKETA  
Aritz Kortabarria, hamargarrena  
Zegama-Aizkorri proban > 21



KOLOREA ETA JENDEA Mundumirako egitarau eta eskaintza zabalak jendetza erakarri zuen Eskoriatzara; argazkian, jende multzoa perkusio emanaldia ikusten.

JOSETXO ARANTZABAL

JAIALDIA > KULTURA ANIZTASUNA

## Mundumira: bosgarren arrakasta, Eskoriatzan

JENETSUA Domeka arratsaldean ekaitza hasi zen arte, asteburuan jendez beteta egon da Eskoriatza

MACACO Huheziko aparkalekua txiki gelditzekotan egon zen zapatu gaeuko kontzertuan > 29-31

EKONOMIA > KRISIA

### Gizarte zerbitzuak, diruz estu

Larrialdietaarako aurrekontuak, bukatzean > 06

FUTBOLA > UDA-MONDRA

### Merezitako omenaldia, klub osoari

Irabazitako derbia baino, ospakizuna protagonista > 23

#### AURKIBIDEA

- Debagoiena > 04-05
- Ekonomia > 06
- Auzoak > 07
- Elkarrikzeta > 08
- Iritzia > 10
- Herriak > 11-20
- Kirola > 21-28
- Kultura > 29-32
- Sailkatuak > 34-35
- Telebista-irratia > 37
- Berri-zakua > 38-39
- Azkena > 40

AZPIEGITURAK > AP-1

### Autobidea, bukatuta eta zabalk

Egubakoitzean eman zioten bukaera hamar urte luzez iraun duten lanei. Eguerdian inaugurazio ofiziala egin zuten; eta iluntzean behin betiko zabaldu zuten Eibar eta Gasteiz lotzen dituen AP-1 autobidea. > 02-03



Agintariak, zinta mozten.

MIREN ARREGI

### Iritsi dira maiatzeko opariak! Badago zuretzat?

Zoaz 27. orrialdera



AZPIEGITURAK &gt; AUTOBIDEA

# Eibar-Gasteiz, aspaldiko erronka, egubakoitzetik osorik zabalik

**EKITALDIA** Egubakoitzeko inaugurazio ofizialean Jaurlaritzako, Aldundiko, Batzar Nagusietako eta Udaleko ordezkariak izan ziren

**ALTERNATIBA** Markel Olanok eta gainontzeko agintariekin nabarmendu zuten AP-1 nazioarteko garraiorako ezinbesteko alternatiba dela

I.BARANDIARAN/M.ARREGI > ARRASATE Egubakoitz eguerdian inauguratu zuten AP-1eko Eskoriatza eta Arrasateko arteko tramua, eta behin betiko zabaldu zuten Eibar eta Gasteiz lotu eta Debagoina zeharkatzen duen autobidea.

Eskoriatza eta Arrasate arteko tramua egiten 2006ko urtarrilean hasi ziren; hortaz, ia hiru urte eta erdi eman dituzte. Tramua 6,3 kilometro luze da eta tarte horretan bi biaduktu eraiki dituzte, eta hiru tunel luzatu, Gurutzetxiki, Izurieta eta Apotzagakoak, hain zuen ere.

**'EGUN HISTORIKOA'**  
Zinta mozketaren eta aurreskuanen ostean, Markel Olano ahaldun nagusiak hitza hartu zuen.

**Gaur egungo  
agintariez gain,  
azken 10 urteotako  
ahaldun nagusiak ere  
izan ziren AP-1en  
inaugurazioan; urte  
askotako lana izan  
da, eta guztiek  
nabarmendu zuten  
Euskadirendako  
aurrerapen handia  
izango dela**

Olanok historikotzat hartu zuen egun hori, eta nabarmendu zuen Gipuzkoako erreppide sare integrala sortzeko AP-1 elementu garrantzitsuenetariko bat dela. Eta horri gaineratu zion, "Gipuzkoako biribilgunea" ere badela.

**N-1-EN ALTERNATIBA**  
AP-1 Gipuzkoako etorkizunaren oinarria dela uste du ahaldun nagusiak, eta N-1aren alternatibatzat hartu zuen: "Orain arte nazioarteko garraioa N-1etik bideratu behar izan dugu, baina orain bada alternatiba bat".

**IREKIERA, ATZERAPENAREKIN**  
AP-1a egubakoitz eguerdian inauguratu zuten arren, jendearendako irekiera ofiziala 17:00etarako



Egubakoitzetik zabalik dago Eibar-Gasteiz autobide osoa; irudian Arrasateko tramuko zati bat.

aurreikusita zegoen. Langileek korrika eta presaka ibili behar izan zuten azkeneko ukituak bukatzeko, eta azkenean 19:45ean zabaldu zuten behin betiko. Gainera, atzerapenak eta bidesarietako langileek gidariak ez ohar tarazteak konfusioak eragin zituen: auto batzuk ez aurrera ez atzera gelditu ziren.

**GATZAGARA, ZIRKULAZIOA ITZULI**  
Bestalde, Eskoriatzatik Gasteizera arteko tramua doan izan den bitartean Leintz Gatzagan lasaitasun handia izan dute. Orain, berriro, autobidea ordaindu behar denez, uste dute zirkulazioa eta zarata bueltan etorriko direla. Asteburua pasa arte, ez dakite zelan igarriko duten.



Aldundiko, Jaurlaritzako, Batzar Nagusietako eta Arrasateko Udaleko ordezkariak, inaugurazio ekitaldian.

MIREN ARREGI

Ino Galparsoro, Markel Olano eta Iñaki Arriola, zinta mozten.

M.ARREGI



JOSETXO ARANTZABAL

ATZERAPEN ASKOREKIN GAUZATU DUTEN ASMOA

## Aspaldiko asmoa gauzatu da, hamar urtetan lanean aritu eta bi behargin hil ostean

Badira 30 urte baino gehiago autobidearen trazatua planoetan marrastuta zegoela; aspalditik zegoen agintarien asmoen artean. Baino proiektua bigarren mailan gelditu zen. Gerora, baina, -Gipuzkoako ahaldun nagusi ohi Roman Sudupek gogora ekarri duen moduan- Diputazioan diru poltsa bat sortzea erabaki zuten; eta PSE-EErekin batera, EAJk eta EAK Bidegi sortu zuten. Horren ostean, 1998an, Gipuzkoako eta Arabako Diputazioek ekimena berpiztea erabaki zuten. Hala, Gipuzkoako zatian 1999an hasi zituzten lanak; lehenengo tramua: Eibar (Maltzaga) eta Bergara Iparra artekoa. Orduko aurreikuspenek 2007rako bukatuko zutela esaten zuten.

### BIADUKTUAREN ZATI BAT JAUSI ZEN

2003an, Bergara eta Soraluze arteko Larreategi biaduktua zati bat jausi eta lau langile zauritu ziren; horietako bat 33 urteko V.P. gau berean hil egin zen. Gainontzeko onera egin zuten.

2003ko abenduan Maltzaga eta Bergara Iparra arteko tramua inauguratu zuten; 2004an, Bergarako Iparra eta Hegoa artekoa; eta 2005ean, Arrasaterekin batzen duen zatia. Zoritzarrez, 2006an, 39 urteko langile bat hil zen Luko (Araba) inguruan ibilgailutik jaustean.

### AURREIKUSITAKO EPEAK ATZERATZEN

2008an Etxabarribiña-Luko (Araba) tramua zabaldu zuten bidesari barik; eta 2009an Luko eta Eskoriatza artekoa, hori ere bidesari barik. Egubakoitzean bukatutzat eman zuten epez atzeratzen joan den proiektua.



Sudupe, Gallastegi eta beste agintari batzuk hasierako lanetan, 1999an.

ARTXIBOA

### PROTAGONISTAK

## Erabiltzaileak orokorrean gustura, baina prezioarekin kezka dute

Asteburuan autobideko bidesarira jo dugu auto gidarien, erabiltzeen iritzia jasotzeko. Zapatu goiz-eguerdian auto nahikotxo ibili ziren, Gasteiz eta Arrasate bitartean.

Gehienek onartu ziguten gustura ibili zirela autobidearen tramuak estreinatzen. "Bazen ordua", "Oso ondo gelditu da", "Aguro eta eroso egiten da bidea" izan ziren jasotako erantzunetako batzuk.

### INGURUNEARI KALTE HANDIA

Dena dela, batzuek onartu ziguten Leintz bailara zelan gelditu den ikusita, "pena handia" ere hartu dutela: "Guztiok erabil dezakegu, baina txikizioa izugarria da", aitorri zigun eskoriatzar batek.


Bestalde, erabiltzaile askok azaldu ziguten garestia dela, eta bat batek baino gehiagok, doan izan beharko litzatekeela, "guk ordaindu dugulako".



Imanol Ibañez  
Arrasate



Jesus Mari Arteaga  
Arrasate



Joseba Arroiate  
Eskoriatza

### "Ondo dago, nahiz eta garesti samarra izan"

"Atzo (egubakoitz) kaosa izan zen, Arrasaten autobidera sartu eta oraindik zabalik ez zegoela ohartarazi ez zigitelako. Bestela, autobidea ondo dagoela esango nuke, nahiz eta garestia izan".

### "Baneukan gogoa lanak bukatzeko"

"Oso ondo dago autobidea. Arrasaten bizi naiz, baina Gasteizko naiz eta askotan ibili behar izaten dut hara eta hona. Banuen gogoa bukatzeko eta ondo dagoela uste dut; ez da garestia".

### "Niri Gatzagatik joatea hobe datorkit"

"Eskoriatzakoa naizen arren, Gasteizen bizi naiz aspaldian, baina Gatzagatik joatea hobeto etortzen zait. Gaur Carrefourretik Arrasatera arteko bidea 13 minututan egin dut".



Agitariak aktak sinatzen.



Ibarretxe, lanak hastean.

ARTXIBOA



Juan Jose Ibarretxe eta Roman Sudupe lanetako lehenengo harria jartzen.

ARTXIBOA



Arrasateko Ford Mugarriko Rafa Etxabe, auto kontzesionarioan duen auto berria erakusten.

M.B.

**EKONOMIA > AUTOMOBILGINTZAREN KRISIA**

# Auto berria erosteko laguntzek mugimendua eragin dute gurean

2.000 euroko laguntza aurreikusten duen plan berria indarrean jarri zuten astelehenean

Martxotik salmentetan saltzaileek igerri duten beherakadari aurre egiteko balio dezake

**MIRIAN BITERI > BERGARA**  
Debagoieneko auto kontzesionarioak ez daude momentu onenean. Salmentei dagokienez joan den urtea nahiko ondo amaitzea lortu bazuten ere, azken bi hilabeteotan jaitsiera igerri dutela jakinarazi digute.

Arrasateko Ford Mugarriko Rafa Etxabek azaldu du indarrean izandako promozioak direla eta, martxora arte "nahiko ondo" ibili direla: "Azken bi urteotan, merkatu kuotarekin alderatuta, salmentak onak izan dira. Estrategia agresiboekin eta lan eginda lortu ditugu emaitza horiek". Bainan martxotik gaur arte salmenten jaitsiera nabarmena izan dugu, %30 ingurukoa". Bereziki, gama handiko autoen salmentan antzeman da beherakada, bai bigarren eskukoetan eta baita auto berrieta ere.

Bergarako Autos Ioneko Felix Agirrek ere jaitsiera izan dela onartu du. Bainan, enpresa txikia denez, gutxiago igartzen dela dio. Dena den, egoera ez dela kez-

katzeko modukoa gaineratu du: "Oraingo, mantentzen gara. Bainan ez dago lehengo mugimendurik eta, gainera, autoak erosteko mailegu onak egon behar dira".

## LAGUNTZA ZUZENEN PLANA

Jakina denez, salmentak sustatzeko Espainiako Gobernuko presidente Jose Luis Rodriguez Zapaterok auto berria erosteko laguntza zuzenak iragarri zituen, Estatuaren egoeraren gainekeo eztabaidan. Plana joan den astelehenean jarri zuten indarrean.

Orain arte, Vive plana zegoen. Horren bidez, gutxienez hamar urteko ibilgailua utzi eta CO<sub>2</sub> emisio txikiko auto berria erosi ahal izateko finantzabidea errazteko jarri zuten indarrean hori.

Abian jarritako plan berriak, esan bezala, laguntza zuzenak ditu. Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrek 2.000 euroko laguntza jasoko dute horren bidez. Auto fabrikatzaileek 1.000 euro jarriko dituzte; Espainiako Gobernuak, 500; eta Jaurlitzak, azkenik, beste 500 euro. Nafarroaren kasuan, kopuru hori zertxobait handiagoa izango da, Nafarroako Gobernuak 700 euro emanago dituela iragarri du-eta.

## BI BALDINTZA

Baina laguntza jasotzeko bi baldintza bete beharko dituzte: erosleek, batetik, hamar urtetik gorako auto zaharra bajan beharko dute; eta, bestetik, 150 miligramo CO<sub>2</sub> baino gutxiago kutsatzen duen autoa erosi beharko dute.

Etxaberen esanetan, laguntzak "beti" ondo badaude ere,

oraingoa "berandu" iritsi da. Horren harira, gaineratu du "nahiko era nahasian" aurkeztu dute-la: "Horrek, lagundu beharrean, jendea nahastu egin duela uste dut. Ikusi beharko da hemendik bi

**DATUA**  
**2.000**  
EURO

Erosleek 2.000 euroko deskontua dute auto berria erosteagatik. Auto fabrikatzaileek 1.000 euro jarriko dituzte, Espainiako Gobernuak 500 eta Jaurlitzak beste 500.

hilabetera emaitzak nolakoak diren, baina Nafarroako Gobernuak, esaterako, planteamendu garbiagoa egin du eta, oraingo, eraginkorragoa izan da han".

Horren harira, Etxabek ordezkatzen duen markak, esaterako, sei hilabete baino gehiago daramatza 1.000 euroko deskontuak eskaintzen, eta, beraz, azken prezioak mila euroko deskontua izango du, aurretik kopuru bera aplikatzen zen-eta: "Argazkian 2.000 eurokoekin irteten badira ere, hori ez da horrela. Joko politikoaren barruan sartzen dut nik hori".

Agirrek ere ondo ikusten du laguntzak eskaintzea. "Laguntzak beti onak izaten dira, bai

guretako eta baita merkatuaren-dako ere". Gogorarazi du gurean enpresa asko daudela automobilgintzaren arlorako lan egiten dutenak. Dena dela, Etxaberen bat dator planaren aurkezpena dela-eta: "Modua ez da egokiena izan. Gauzak esaten aurreratu badira ere, batzuk oraindik ez dira ofizialak. Etxeak nahiko galdu gaude eta ez dakigu zelan jokatu behar dugun".

## "MUGIMENDUA" ERAGIN DU

Etxabek eta Agirrek dagoeneko igerri dute Zapaterok abian jarritako neurriak "mugimendua" eragin duela auto kontzesionarioetan. Agirrek aipatu du neurri hori indarrean egon arte autoa erostera animatu ez diren bezeroak dituela. Etxabe eszeptikoa da: "Orain, ikusi egin beharko da bezeroak zer pentsatzen duen gauzak nolakoak diren jakinda".

Agirren ustetan, automobiltzaren arloa bizitzeko "eraginkorra" izango da: "Esan bezala, laguntza guztia onak dira. Vive plana ere oso interesgarria zen. Baina oraingoa laguntza zuzenda da. Interesgarria da autoa aldatu gura dutenendako, parkea modernizatzeko eta baita inguru-menarendako ere".

## AURREIKUSPENAK

Automobilgintzako aurreikuspen gainean ere jardun dute auto saltzaileek. Biek uste dute egoera ez dela egun batetik bestera konponduko. Etxaberen arabera, "lau bat urte" pasatuko dira egoerari buelta emateko. Aurreikuspen horrekin bat badator ere, positiboagoa da Agirre: "Apurka aurrera joango dela iruditzen zait". Aldaketa datorren bitartean, plan berria ere ordurako errealtitatea izango da.

## ESANAK

**"Martxotik gaur arte salmenten jaitsiera nabarmena izan dugu, %30 ingurukoa; bereziki gama handiko autoetan"**

Rafa Etxabe > Ford Mugarri



Bergarako Autos Ioneko Felix Agirre bezero batzuk Citroen markako auto baten gaineko azalpenak ematen.

M.B.

OSASUNA > ARRETA

# Pediatria zerbitzu pribatua zabaldu dute Arrasaten

Duela bi aste zabaldu zuten zerbitzua Udalaitz zentro medikuan; printzipioz arratsaldez

JASONE ZABALA > ARRASATE

Debagoienean martxan jarri dute pediatria zerbitzu berria. Orain arte ez da egon pediatra zerbitzu pribaturik gure ibarrean. Hori horrela, herrietako anbulatorioetara edo Debagoieneko Ospitalera joan behar zen pediatriarengana.

BI ASTETATIK MARTXAN

Orain, berriz, eta duela 15 egunetako, CMUen (Udalaitz zentro medikuan) jarri dute martxan zerbitzua. Orain arte, bi aste horietan jendearen erantzuna positiboa izan dela adierazi digu Paco Ansoategi Zentro medikoko gerenteak: "Duela bi aste zabaldu da zerbitzu berria eta

jendearen erantzuna oso positiboa izan da orain arte; gainera horrelako zerbitzu baten falta zegoen Debagoienean". Pediatria zerbitzua astean behin emango dute hasiera baten (eguztenetan) eta dauden eska-

DATUA

2  
PEDIATRA

Zerbitzua Quiron klinikako pediatria taldeko bi medikuk emango dute. Hasiera baten eguztenetan egingo dute.

eren arabera, bigarren egun bat ere eskaintzen dute (astelehena). Ordutegiari dagokionez, hasiera baten, 14:30etatik 19:30era jarri dute, baina, Ansoategik adierazi digunaren arabera, zerbitzu horren erabiltzaileek ematen dioten erantzunaren arabera, 10:00etatik 19:30ak arteko etenik gabeko ordutegia jartzea da asmoa. Udalaitz zentro medikuan zerbitzua eskainiko dute-nak Quiron klinikako pediatria zerbitzukoak izango dira.

EDOZEINENDAKO

Ansoategik adierazi digunez, "pediatria zerbitzu hori edozeinendako dago zabalik, bai seguру pribatua duenarendako eta beste edozein pertsonarendako. Ordua Udalaitz osasun zentroan hartzu daiteke, 943794422 telefona deitura.

EUROPAKO LEGBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK



Egibar, Bilbao eta Urkullu zapatuko ekitaldian Arrasaten. J.ARANTZBAL

POLITIKA > JELTZAILEAK

## PP eta PSE-EEren fronteari aurre egingo dio EAJk

IKER BARANDIARAN > ARRASATE  
Zapatu goizean Europako legebiltzarreko hauteskundeei begira, ekitaldi politikoa egin

zuen EAJk Arrasateko Biteri plazan. Alderdiko presidente Iñigo Urkulluk, Europako hauteskundeetarako zerrendaburu

ru Izaskun Bilbaok eta Gipuzkoako Buru Batzarreko presidente Joseba Egibarrek esku hartu zuten.

KOOPERATIBAK, EREDU

Izaskun Bilbaok azaldu zuen Arrasateko mugimendu kooperatiboa "daukan ezaugarriengatik Europako ekonomia sozialaren eredu" izan daitekeela. Horrez gain, azpimarratu zuen "Euskadik txiki eta hurbilnetik abiatuta asko" duela Europari eskaintzeko; eta EAJ dela Europara iristeko aukera daukan "euskal indar politiko bakarra".

Bestalde, Urkulluk Biteri plazara hurbildutakoei eskatu zien PSE-EE eta PPri "euskaldunon erantzuna ozen agertzeo"; eta galdeku zien ea irudikatzen al duten "Mayor Orea Europaren euskaldunon alde egiten?". Gainera, azaldu zuen EAJk PP eta PSE-EE frontearen kontra egingo duela.

POLITIKA > SOZIALISTAK

## PSE-EEk politika soziala egingo duela azaldu zuen Arrasaten eta Eskoriatzan

Arrietak nabarmendu zuen Europako hauteskundeek garrantzia oso handia dutela

I.B. > ARRASATE  
Egubakoitz eguerdian PSE-EE taldeko hainbat ordezkari arrosak eta Europako hauteskundeetarako propaganda banatu zuten Eskoriatzan eta Arrasaten. Besteak beste, Blanca Roncal eta Paco Gartzia lege-

biltzarkideak eta Aritz Arrieta zinegotziak egin zieten arreta herritarrei.

Arrietak nabarmendu zuen Europako hauteskundeak garrantzitsuak direla erabaki asko hartzen direlako, eta PSE-EEk krisia ezabatuko duela.

etxeko leihotik



Iker Barandiaran > 'ibarandiaran@goiena.com'

## Autobidetik baino, hobe gurean erromesaldian

N i bizi naizen etxeko leihotik ez da autobidea ikusten (gutxigatik da, baina askoz hobeto!). Horrez gain, baina, asteburu honetan leihotik ikus zitekeen jendea hara eta hona Mundumirara oinez, erromesaldian.

Elena Lakak idatzi du *Zorrotailea* atalean, ibarrekoko bertan lan egiten dugula eta autobidea aisiaaldiako ihesbide moduan erabiltzen dugula. Ez dabil erratuta Laka, kontrako baizik. Besteren baten ere hemen jaso dugu seguруn aisiaaldiako irudimen txikia dauagula ibar honetan.

Bestalde, behin baino gehiagotan esan digute autobideari esker kanpotik jende asko etorrako dela Debagoienera. Baliteke hala izatea, baina beti ere hori izango da hemen egiten dugunaren araberakoa. Eta horri gehitu beharko diogu iraganean Debagoiena ikusi zutenak eta AHT bukatzen dutenean bisitatuko dutenek ez dutela gauza bera ikusiko; autobidearen eta AHTko lanen ondorioz, aldaketa begibistakoa izango da.

Aisialdira bueltatuta, lan kontuengatik Mundumirara zapatu gauean bakarrik joan ahal izan nintzen, baina zur eta lur utzi ninduen han ikusitako jendetza. Badakit Macaco musikaria oso mediaticoa dela gaur egun, baina ziur nago han batutako asko eta asko jakin-minak eta zeharo gorputzta dagoen Mundumira jaiak erakarri zituela. Neuk bide horri jarraituko nioke, soseguz bada ere.

> Lekukotasuna

Domekan San Joxepe elkartearen izan nintzen 87 urte bete dituzten 20 bat bergararen omenaldian. Askotan pentsatzen dut gure aurrekoek bizi izandakoa eta euren lekukotasuna jasotzen ez badugu, betiko galduko direla

> Axolagabetasuna

Europako legebiltzarreko hauteskundeetarako kanpaina egubakoitzean hasi zuten, baina inor gutxik egingo lieke kasu, salbuespen egoeran biziko ez bagina. Alderdi batzuek ezin esku hartu izana da albiste bakarra

EUROPAKO LEGBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK

POLITIKA > EZKERRA

## Alternatiba Eraikitzen, Ezker Antikapitalistaz

J.Z. > ARRASATE

Arrasateko Alternatiba Eraikitzen taldeko Joseba Ugalde eta Ander Rodriguezek eta Zutik taldeko Julia Monjek Ezker Antikapitalistaren hautagai-zerrendari babesia eman diote, azken talde honek dituen "Europa kapitalistaren aurkako ikuspegia kritikoarekin" bat egin ten dutelako. Talde horrek 80 kargu publikoen abalak batu ditu, behar direnak baino 30 gehiago.

PARTE-HARTZE TXALOGARRIA

Arrasateko Alternatiba Eraikitzen eta Zutik-eko Udal taldeetakoek kapitalismoaren aurkako hautagaitzarako lortu duten jendearen parte hartzea txalatu dute, eta honakoa adierazi dute: "Europa kapitalaren ikuspegia kritikoarekin ados gaude, eta bizi dugun krisi egoeratik irteteko alternatiba antikapitalista, antiarrazista, antimperialista, feminista, ekologista eta sozialista bultzatzen dugu krisistik irteteko".

KRISIA &gt; DIRULAGUNTZAK

# Gizarte Larrialdietarako Laguntzak emateko estu dabilta udalak

Gipuzkoa osoko eta balarako udalak larri dabilta dirulaguntza eskaerei aurre egiteko

Udal batzuek oraindik badute dirua, baina urte bukaera baino lehen amaituko zaie

LEIRE KORTABARRIA &gt; BERGARA

Larrialdi egoeretarako ematen diren dirulaguntzetaiko aurrekontua bukatu zaie Debagoieneko udal batzuei, eta beste batzuk urte bukaerara iristeko "larri" ibiliko direla onartzen dute. Egoera hori ez da eskualdeko barkerrik; Gipuzkoako udal askori urteko lehen hiruhilabetean bukatu zitzaien aurrekontu hori.

Debagoieneko zenbait Udal Gizarte Zerbitzuetan galdetuta, krisiak hemen ere eragin duela egiaztatu dugu. Gizarte Larrialdierako Laguntzak delakoa ematen dute udalek: normalean, errenta, hipotekaren interesen amortizazioa eta etxeko manteua ordaintzeko dira; eta, beste

neurri baten, lehen mailako premia batzuk ordaintzeo. Larrialdiko laguntza 290 bat euro hileko da, baina irizpide desberdinak daude, egoeren arabera.

## AURREKONTUA GAINDITU

Bergarako Udalak dagoeneko 123 laguntza eskaera zituen onartuta maiatzerako, 2008 osoan baino gehiago (115). Emandako dirulaguntzak ere askoz altuagoak dira aurtengo maiatzean (88.511,12 euro) iazkoan (62.659,17) baino. Aurtengo aurrekontua 270.000 eurokoa zen (iaz, 176.202,21); eta maiatzean dagoneko ia 5.000 eurotan gainditzen zuen aurrekontua onartutako dirulaguntzen kopuruak. Dena

dela, Bergarako Udalak dioenez, "normalean, inoiz ez da onartutako diru guztia gastatzen", hainbat arrazoirengatik (onuradunek diru sarrera aldaketak dituzte, gastua ez dute justifikatzen...). Iaz ere, onartutako dirulaguntzak aurrekontua baino 70.000 bat euro altuagoak izan ziren. Kontuan hartu behar da ere Eusko Jaurlaritzak gehigarri bat ematen duela urte bukaeran.

Aretxabaletako Udalean ere aurrekontua bukatu zaie; han 60.000 euro zuten urte hasieran laguntzetaiko. Hala ere, eskaerak jasotzen jarraitzen dute, eta horiek itxoite-zerrenda baten ipintzen dira. Mirari Aiestui ardura-dunak dioskunez, "eskaera kopuruia iazko antzekoa da, baina egoerak larriagoak dira orain".

## LAGUNTZAK ETEN BEHARRA

Oñatiako Udaleko Ongizate Sailean, oraindik dirurik bauakate laguntzoi aurre egiteko, baina soberan ez: urtero 45-50 kasu izaten badituzte, aurten dagoeneko iritsi dira kopuru horretara. Aurtengo aurrekontua 86.032,56 euroko zuten. Hango arduradunek gogorarazten dute dirulaguntzak jasotzeari uzten diola inork hain-

bat baldintza ematen badira: adibidez, langabe batek lana topatzen badu edo herritik kanpo baoa; hala ere, aurtengo egoera berezia kontuan hartuta, borondatezko bajarik ez dute aurreikusen. Edozelan ere, gaineratzen dute "azarorako-edo" dirulaguntza gehiagorako fondonik eongo ez dela-eta, laguntzak eten egin beharko dituztela ohartarazten hasi direla.

## ONARPENAK, EPEKA

Eskoriatzako Udalean badago berezitasunik: normalean, dirulaguntza eskaerak urte osorako onartzen badira -nahiz eta dirua hilero ematen den-, han hilabete batzuetarako onartzen dituzte; han ere, eskaera egoera asko alda daitekeelako, eta behin baino gehiagotan. Han, apiril bukaeran 8.000 euro geratzen zitzaien laguntzetaiko, urte oso-rako 30.137 euroko aurrekontutik. Laguntza eskaera gehiago dituzte aurten: "30 bat baditugu; normalean, 17-18 urtean", dio Beronika Solaguren arduradunak. Eskatzaile mota ere desberdina da: "Lehen, erretiratuak, langabeak... ziren gehienak; orain, asko datozen gazteak, ama bakarrak..."

Amaia Bilbao > Orga Jasotzaile eta Zubi-Garabi irakaslea Miguel Altunam

# "Lanean dauden, baina agiria behar duten ikasle asko ditugu"

L.K. &gt; BERGARA

Orga Jasotzaile eta Zubi-Garabi ikastaroa ematen duten Estatuko leku bakarrenetako da Bergarako Miguel Altuna institutua. Urte osoan ematen dituzte bi ikastaro horiek; joan den astehenean hasi ziren bi talde.

**Zenbat ikasle ibili dira edo daude izena emanada?**

Urritik ekainera arte ematen ditugu ikastarook, eta 162 lagun egon dira edo daude izena emanada; horietatik 75 langileak dira, eta 87, gure ikasleak.

**Berriak dira ikastarook?**

Joan den ikasturtean proba bezala abiarazi genuen, baina gure ikasleekin aurten hasi gara. Hobetuz programaren bitartez ere etortzen dira, eta dagoeneko lanean dabiltsanak baina ziurtagiria edo prestakuntza jakin bat eskatu diotenak. Gipuzkoako osotik, Bizkaitik... dator jendea. Gu Frantzian izan ginen, han legez jasota dagoelako ziurtagiria edo titulu hau, eta hangoa moldatu dugu hona.

**Zergatik dabil hainbeste jende jarduera horietan lanean zertifikaziorik gabe?**

Hemengo legeak esaten due-lako langileak izan beharko due-la formazio teoriko-praktikoa orga edo garabia maneiatzeko, baina ez duelako zehazten zertan datzan formazio hori: ze eduki behar



Amaia Bilbao ingeniera eta irakaslea, orga jasotzaile simulagailuan.

LEIRE KORTABARRIA

dituen, zenbat ordu ibili behar izan den langile hori... Hemen ziurtagiri hori jasotzen dute.

**Zer ematen duzue ikastarootan, zelakoak dira?**

Orga jasotzaileen ikastaroa 22 orduko da, eta zubi-garabiena, 17 orduko. Bietan, teoria zatia dago, simulagailuarekin lan egitea barne; eta gero, praktikak egiten dituzte Gasteizen, Osalanek homologatuta. Gero ziurtagiria jasotzen dute. Ikastarook euskaraz eta gaztelaniaz ematen ditugu.

**"Etengabe ematen ditugu ikastarook, eta goizez edo arratsaldez egiteko aukera dago"**

**Esan duzu langile asko datorrela, baina lan bila dabiltsanak? Krisiaren eragina igarzen duzue?**

Bai, krisiak badu eragina ikastaro hauek duten eskaeran; lanik ez dagoenean eta astia dagoenean, askok ikastea erabakitzentzu-

dute. Dena dela, krisia ikastaro hauetan bakarrik ez, denetan igartzen da; hala da, zoritzarrez.

**Noiz ematen dituzue eskolak?**

Etengabe ematen ditugu, eta aukera dago goizez edo arratsaldez egiteko; esan bezala, langile asko datorrenet, euren ordutegira moldatzen gara. Gainera, Hobetuz programak bideratzen dituen eskolak arratsaldez dira; oraingoz, Lan Saileko programetan ez daude sartuta ikastaro hauek. Hortaz, eskola gehienak arratsaldez ematen ditugu orain.

## ENPRESAK

**171 milioi Elkarreko 569 enpresari**

Enpresa horien zikulatzalea finantzatzeko onartu da kopurua

L.K. &gt; BERGARA

Bergaran ere jarduten duen Elkargi elkarrekiko garantia elkartea, gaur egun arte, 171,3 milioi euroko zenbatekoa onartu du 569 enpresarentako. Euskadiko Administrazio Publikoarekin sinatutako zirkulatzalea finantzatzeko 500 milioiko lerroari dagokionean, elkartearren datuen arabera. Aurkeztutako eskarien %77,6 onartu dute.

Bestalde, eta sozietatearen ohiko jardueraren barruan abal jarduerari dago-kionean (zirkulatzalearen lerroa aparte utzita), urteko lehen lauhilekoan Elkargik, denetara, 97,5 milioi euroko abalak formalizatu ditu, iazko epealdi berean formalizatutako 97,6 milioi euroko zenbatekoarekin alderatuta, abal jarduera maila berberari eus-tea dakarrena. Abal finantza-rioek %9,7 egin dute behera, eta abal teknikoek, berriz, %7 hazi dira, iazkoarekin alderatuta.

Urteko lehen lau hilabeteetan, 855 enpresa bazi-kide berri egin ditu Elkargik.

## auzorik auzo

**MURGIA** > Aloña mendiaren magalean dago Oñatiako Murgia auzoa; herrigunetik gertu dago, eta auzoko familiak industria sarean sartu diren arren, ez dute baserriko bizimodua alde batera utzi. Asentzio jaiak ospatu berri dituzte.



Estanis Usandizaga Asentzio ermitaren aurrean; atzealdean, auzoko elkartea berria.

A.E.

Estanis Usandizaga > Murgiako auzo-alkatea

# "Elkartarekin auzoa berritu eta indartu egin da; gazte asko batu dira elkartean"

**ARANTZAZU EZKIBEL** > OÑATI  
Azkeneko sei urteotan Murgiako auzo-alkate lanetan dabil Estanis Usandizaga. Dio gazte asko dato-rela atzetik, lan egiteko gogoarekin. 30 baserri inguru daude Murgian; auzotarrak, berriz, 120 baino gehiago direla dio Usandizagak.

Auzotarren kezka nagusia da auzoko errepidearen egoera. Ze egoeratan dago?

Bai, gaur egun auzoan dagoen behar nagusia errepidea da. Jende asko ibiltzen da Murgian pasioan eta bidea estua da. Gainera, kontuan hartu behar da autoak gero eta handiagoak direla; eta, kamioiak etortzen dira baserrietara pentsuarekin, autobusak ermitan ezkontzaren bat dagoenean...

Aurtengo inbertsio bezala Udalerri eskatu diogu bidea zabaltea. Batez ere, behar handiena Jauregi eta Bixain baserrien arteko zatian dago.

**Baserri guztietarako bideak daude asfaltatuta?**

Errepidea baserri guztietara dago, baina errepidea asfaltatuta ez dago toki guztietan. Hortaz, eskatuko dugu alde batetik bidea zabaltzea, baina baita brea botatzea ere.

**San Martin ondoan egin duten auzune berriak izango du era-ginik auzoan?**

Auzo hasieran dago auzune berri hau; hortaz,uste dugu ez duela arazorik sortuko. Esan behar da, Murgia auzoa herriarekin lotzeko balio izan duela auzune berriak. Zati horretan, gainera, errepidea zabaldu egingo dute eta bide gorria ere egingo dute. Hortaz, alde horretatik begiratuta onura izango da.

**Garai batean esan zen, saihesbidea pasako zela auzotik.**

ASENTZIO ERMITA

## 1906. urtean orain dagoen tokira eraman zen ermita

Garai baten hiru ermita zeuden Murgia auzoan; horietatik bi desagertuta daude: Santikutz eta Sanjurgi ermitak, hain zuzen. Hirugarren ermita Murgialdai baserriaren ondoan zegoen. 1489ko datuen arabera, San Andres izena zuen ermitak. XVII. mendearren amaieran, ostera, Asentzio izenez agertzen da ermita. 1906. urtean, zergatik ez dakigun arren, gaur egun dagoen tokira eraman zuten ermita. Esan behar da, ermitako erretaulan San Andresen irudia dagoela. Iaz, Jose Antonio Azpiazu historialariak eta aita Fermín Altubek auzoari buruz idatzitako liburutik hartutako datuak dira.

Gai hori geratuta dago. Iku-si da garraio guztia autopistatik bideratu dela, eta trafiko gutxi ibiliko dela Oñati eta Legazpi artean. Hortaz, printzipioz, geratuta dago saihesbidearen gaia.

**Martxoan urtebete egin du auzoko elkartea. Zer ekarri du auzoaren dako elkartea?**

Auzoa berritu eta indartu egin da elkartarekin. Gazte asko batu dira eta horrek indarra eman dio auzoari.

Auzo lanean egin dugu ahal izan dugun guztia; izan ere, kontuan hartu behar da eraikin guztia jaso behar izan dugula, eta horretarako profesionalak etsori dira.

**Auzoan ikusteko dagoen garrantzitsuena paisaia da?**

Bai. Ibilbide politak daude -bide gorri naturalak direnak-, eta paisaia ikusgarria da; goiko baserrietara joanez gero, herri guztia ikusten da. Oñatin berdegune gehien dagoen gunea izango da Murgia auzoa.

**Nola ospatu dituzue Asentzio jaiak?**

Egubakoitzean auzo-afaria egin genuen; lehen beste auzoren batera joaten ginen, baina orain elkartea daukagu eta hemen batzen gara. Herri-kirolak, ber-tsolariak, mus txapelketa, meza, lunch-a... izan dugu.

ASTELEHENeko  
**Goienkaria**  
astelehenean, aste bukaera osoa

## Harpidedunen txokoa Maiatzeko irabazleak

Sariak irabazteko  
**HARPIDETU!**  
Tel.: 943 08 10 50  
harpidetza@goiena.com  
Kuota: 40 euro

**ATXAGAREN LIBURUA**

Esteban Barandiaran Fdez.de Jauregi  
(Arrasate)

**ZIRA**

Aritz Auzmendi Zufiria  
(Arrasate)

**UMEENTZAT LIBURU SORTA**

Beñardo Balerdi Gomez  
(Arrasate)

**MUNDUMIRA PACK**

Jose Antonio Amundarain Arana  
(Oñati)

**ESKOLA PUBLIKOAREN  
JAIAREN PACK-A**

Mertxe Kalparsoro Esteneibar  
(Aramaio)

**JOKOA**

Juanjo Madinabeitia Arando  
(Arrasate)

## SARI NAGUSIA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOKZETATUKO DA



**BELAONTZI BATEAN IRTEERA HONDARRIBIATIK**

J.L. Abuinen eskutik

**J.L. ABUIN / PUY BIDEBURU**  
25 urtetan teknika naturalak zure eskura jartzen

Mendia jauregia  
639 02 47 14

S. Josepe, 10  
943 77 01 33

Kirolegia  
943 77 16 77

Alaitz Pagaldai (Arrasate, 1976) ginekologoa da Debagoieneko ospitalean. Datozen asteetan

biharamuneko pilula errezetarik gabe eskuratu ahalko dute emakumeek. Pilularen erabileraren

gaineko argibideak eman dizki gu. Era berean, Debagoieneko ospitalean kromosomen ingu-

ruko anomaliah detektatzeko egingo duten frogak konbinatuanen gaineakoak azaldu dizkigu.

**Alaitz Pagaldai > Ginekologoa**

# "Biharamuneko pilula ez da eguneroko antisorgailua, larrialditarako da"

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Espaniako Gobernuko Osasun ministra Trinidad Jimenez aurreko astean iragarri zuen biharamuneko pilula errezetarik gabe salduko dutela farmazietan. Pilularen erabileraren gaineakoak kontatu dizki Alaitz Pagaldai ginekologoak.

**Ze aldaketa ekarriko ditu lege berriak? Orain arte nola lortu zitekeen biharamuneko pilula?**

Orain arte errezetarekin soilik lortu zitekeen biharamuneko pilula. Aurrerantzean errezetarik gabe lor genezake edozein farmaziatan. Helburua da pilula ahalik eta azkarren hartzea, eraginkortasuna handiagoa izan dadin.

**Ze iritzi duzu Osasun Ministerioak iragarritako neurriaren gainean?**

Pausu egokia iruditzen zait. Europako beste herrialde batuetan aspaldi erabiltzen dute sistema hau, eta eurek emandako datuen arabera, abortuen portzentajea asko jaitsi da. Bestalde, kontuan hartu behar dugu abortuak eragiten dituen ondorio asko ekidingo direla; besteak beste, psikologikoak eta fisikoak.

**Erabaki honen ondorioz, emakumeek errazago hartuko dute biharamuneko pilula? Beste antisorgailuak alde batera utziko dituzte?**

Helburua pilula hauetako gehiago erabiltzea litzateke, baina beti behar den bezala erabiliz gero, eta ez eguneroko metodo antisorgailuak alde batera utzita. Ez dugu bata edo bestea aukeratu behar, erabiltzen ditugun guztiak ondo erabiltzen jakin beharko genuke. Metodo antisorgailu bakoitza zerterako den jakin beharko genuke. Horregatik importanteena emakumei informazioa ematea da.

**Hain erraz lortuta, jendeak antisorgailu moduan erabiliko du biharamuneko pilula?**

Ekonomikoki alde handia dago eguneroko antisorgailuaren eta biharamuneko pilularen artean. Preserbatibo batek 20 zenitimo balio du eta pilulak 20 euro. Beraz, ez dut uste eguneroko antisorgailu bezala erabiliko direnik. Gainera, garrantzitsua da jakitea ez duela sexu harremanen bidezko gaixotasunetik babesten.

**Zein kasutan erabili behar da biharamuneko pilula?**



Alaitz Pagaldai ginekologoa Bergarako osasun zentroan.

MIREIA BIKUÑA

## ATZERAPENA

**"Biharamuneko pilula ez da abortu-eragilea, obulazioa atzeratu besterik ez du egiten"**

Sexu harremanak ziurrak izan ez direnean: preserbatiboa apurtzen denean edo barruan gelditzen denean; sexu harremanetan umetoki barneko gailua (UBG) jausten denean; pilula antisorgailuak ahalzen ditugunean; egun ugalkorrak gaizki kalkulatzen ditugunean; bortxaketen ostean,

## ERAGINKORTASUNA

**"Eraginkortasuna %60 eta %90 artekoa da, biharamuneko pilula azkarrago edo beranduago hartuta"**

edo emakumea hartzan dabilen tratamendu medikoa teratojenoa denean enbrioarendako. Osasun Ministerioak neurri berriaren gaineko informazioa eman zuenean esan zuen biharamuneko pilulak ez dueña aborturik eragiten. Hala da?

## FROGA KONBINATUA

**"Bigarren seihilekoan hasiko gara kromosomen gaineko anomaliah detektatzeko frogak egiten"**

Bai. Metodo honek ezarpen fasea baino lehen eragiten du, aurre-enbrioi fasean; beraz ezin da abortu-eragilea denik esan, obulazioa atzeratzen du ezarpen fasea heldu baino lehen. Beraz esan dezakegu, pilula hauetako direnean emakumea oraindik haurdun ez dagoela.

## Nola erabili behar dugu?

Sexu harremanak izan eta 72 ordu pasa aurretik hartu behar da. Lehenbailehen hartzen bada eraginkortasuna handiagoa da, horregatik da garrantzitsua erraztasuna izatea erosterako orduan. Eraginkortasuna %60 eta %90 ingurukoa litzateke, azkarrago edo beranduago hartzearen araberakoa.

## Nola jakin dezakegu ez duela bere lana egin?

Horretarako hilerokoari itxaron behar diogu, eta zazpi egunetako atzerapena izanez gero haurdunaldi frogak egin beharko genuke. Baino kontutan izan behar dugu biharamuneko pilula hartzar ondoren, odol jarioa egon daitzeela hilerokoa heldu baino lehen.

## Biharamuneko pilulak badu kontraindikazioak?

Ez. Baino buruko min handiak izaten dituzten emakumei mina areagotu diezaiokete. Arazo puntualak izan daitezke, baina bestelakoan edozein emakumeek har dezake pilula.

## Bestalde, Debagoieneko ospitaleak laster ezarriko du kromosomen inguruko anomaliak detektatzeko jaio aurreko programa. Zertan datza?

Emakume guztiei lehenengo hiru hilabetetan frogak konbinatua egingo diegu. Hain justu ere, analitika hormonala egin eta fetuaren lepoaren zatia neurruko ditugu. Hortik portzentaje bat aterako da programa informatiko baten bidez, eta portzentajearen arabera erabakiko dugu amniozentesi egitea beharrezko den edo ez.

Kontuan hartu behar dugu amniozentesi probak ondorio larriak izan ditzakeela; besteak fetuaren heriotza.

## Zer lortu gura duzue frogak horrekin?

Kromosomen gaineko anomaliah ahalik eta azkarren antzemantzen gura ditugu; alegia, Down sindromearen eta kromosomakin lotutako bestelako anomalien detekzio goiztiarra egitea.

## Nortzuk egin ahalko dute frogak hori?

Frogak konbinatua emakume guztiekizotako izango da, salbuespenik gabe. Poliki-poliki hasiko gara frogak egiten, urteko bigarren seihilekoan.

# Furia



## Gogoratzen?

Zatoz kutxara.  
Une egokia duzu zeure  
**Kutxa Aurreikuspen Planaz**  
pentsatzeko.

zer nahi duzu bihar?

[www.kutxa.net](http://www.kutxa.net)

 **kutxa**

**kale inuesta**

Kezkatzen al zaituzte Europako legebiltzarrerako hauteskundeek? Garrantzitsuak direla deritzozu?



**Mila Azpeitia**  
Langilea  
Bergara



**Jon Balentziaga**  
Langilea  
Bergara



**Marta Rueda**  
Langabea  
Bergara



**Jesus Mari Iglesias**  
Langilea  
Bergara

Europako hauteskundeek ez naute batere kezkatzen. Ez dut uste gure eguneroko bizitzan eragin handirik dutenik, orain arte behintzat ez dute izan. Aurrerantzean ere ez dut uste eragin-gogor digutenik.

Ez naute larregi kezkatzen, ez nuke bereziki eragiten digutenik esango. Batari edo besteari bozkatu, ezer gutxi aldatuko da egoera hemen. Europako hauteskundeak urrun geratzen zaizkigu, eta ez dut uste praktikan larregi eragingo digutenik.

Hauteskundeak datozena behin eta berriro iragarrri dute eta badakit laster datozena. Hala ere, ez didate gauza handirik esaten. Nahiko urrun geratzen zaizkigu, eta ez dut uste praktikan larregi eragingo digutenik.

Neurri batean eragiten digitela deritzot. Hauteskunde hauetan absontzioa altua izango dela diote; hala eta guztiz ere, ni joango naiz bozkatzea, zerbaitetarako balio beharko luketela uste dut-eta.

**irakurlearen txokoa**

**943 25 05 05**

goienkaria@goiena.com

OÑATI

**> Arantzazuko aparkalekuko seinale berriak**

Arantzazun, goiko aparkalekuautoa uzteko ordutegi berezia finkatu dute eta hori iragartzeko seinaleak ipini dituzte. Oñatiko irakurle batek idatzi digu esanez, panel berriak oso handiak eta zatarrak iruditzen zaizkiola eta adierazi du "autobide bateko seinaleak" diruditela. Irakurle honek dio horrelako inguru natural batean oso zatar gelditzen direla eta proposatzen du egurrezko panel txikiago batzuk ipintzea.

ESKORIATZA

**> Mundumirara joateko autobus zerbitzuekin, pozik**

Irakurle batek deitu digu esanez, zorionak eman nahi dizkie la Mundumira festako antolatzaileei autobus zerbitzuek oso ondo funtzionatu zutelako. Inolako arazo barik joan eta bueltatu ei zen autobusez Bergaratik. Gaineratu du espero duela aurrerantzean ere horrelako festetan garraio publikoak horren ondo funtziona-tza, gaez autoa hartu beharrik ez izateko.

ARRASATE

**> Otalora Lizentziaduna kalean, zuloak**

Arrasateko irakurle bat gurekin harremanetan ipini da eta esan digu Arrasateko Otalora Lizentziaduna kalea oso egoera txarean dagoela. Irakurle honek dio azken hilabeteetan zulo asko agertu direla errepidean eta batzuk, gainera, oso handiak direla. Adierazi du autoan kalte handiak eragiten dituztela zuloek.

**usteak uste**

**Mireia Bikuña**

**Bergarako pilotariak**

Kirol zale amorratua naiz, ezin dut ukatu, eta kirol gehienak gustatzen zaizkit. Baina, pilot eta txirrindularitza nahiko astunak egiten zaizkit. Egubakoitzean, lan kontuengatik, Herri Arteko Pilot Txapelketako kanporaketa ikusten egon nintzen Bergaran: Azkoitiak eta Bergarak finalerdiarako txartela zuten jokoan. Eta asko gustatu zitzaidan ikusitakoak: harmailetan giro polita (zale asko azkoitiarrik ziren), eta joko ona kantxan. Pilotari finak ikusi nituen. Kanporaketa gainditu ondoren guztiekin bat egin zuten Reyes Azkoitia entrenatzalearekin. Oñatira itzuli nintzenean koadrilako batek galdezu zidan: "Zer egin dau Irujok?". Bada, ez nuen Irujo ikusi, baina harrobiarekin lana ondo nola egiten den ikusi nuen kantxan. Bergara finalean ikusi nahiko nuke. Zorte on Donostiaaren aurako kanporaketan!

**zorroztaila**

**Elena Laka**

**Festa etxean**

"Mundumira: kulturen jaia asteburuan Eskoriatzan. Jaialdiaren bosgarren ekitaldia ospatu da Eskoriatzan. Aurten ere, natura, kultura eta bidaia izango dira ardatz nagusiak. Debagoienako Mankomunitatea eta Euskal Herria aldizkaria dira antolatzaileak".

Goienkaria > 2009-05-22



Asteburu osoan festa eta kultura izan ditugu Mundumirari esker. Azken bost urteotan, urtean behin, Debagoiena erreferente bihurtzen da festa bat dela-eta, eta lortzen dugu jendea geurera ondo pasatzeko erakartzea. Ez dira bestela ugariak Debagoiena festarekin lotzen duten ekimen ohiartzundunak, ez behintzat bailaratik kanko. Izan ere, geure ibarra lanagatik, jendearen lan-zaletasunagaitik da ezaguna bai Euskal Herrian bai kankoan, ez aisiaroko edo parrandarako gune izateagatik. Gogoan dauak nola Iban Zaldunen ipuin batean, ez galdu zeinetan, baina uste dut *Itzalak* liburuan agertzen dela, "debagoiendar kalbinistak" esaten den. Kalbinistentzako, badakizue, lana arazo moral bat zen, zalantza erlijiosoari aurre egiteko modu bat.

Hori esportatu du Debagoienak eta horrexegatik da ezaguena: lanerako grina, kooperativismoa eta Jose Maria Arizmendiarrietaren kanonizazioa. Merituzaok denak, zalantza barik.

Baina garaiak aldatu egiten dituk/n, konpai. Orain gizarte postindustrial batean bizi omen gara. Zerbitzuek duela mende bat baino indar handiagoa dute. Herritarrentzako lana ez da balore nagusia (nahiz eta garrantzi handia hartzen duen, enplegu ondasun urri bihurtzen denean). Aisia, dibertsioa eta gozamena baloreak dira gaurko gizartean, eta debagoiendarrok, lana bailaran egin ondoren, kanpora jotzen dugu geurean topatzen ez dugun dibertsio horren bila. Ibarra lan egiteko, autopista ondo pasatzeko.

Horregatik iruditzen zaizkit interesgarriak Mundumira bezalako ekimenak, piskanaka-piskanaka herrieta garatzen diharduten beste kultur eta aisia iniziatiiba batzurekin batera. Aukera eman diotelako bailaran lanean geratu den herritarriari bailaran bertan disfrutatzeko, aisiaren inguruan azpiegitura bat sortzeko. Eta kankoan bizi denari, Debagoiena esistitzen dela frogatzeko.

Zeren, horrelakoak mimatu ezean, inauguraratu berri duten autobidea, ekarri duen txikizioa eta guzti, norabide bakarrekoa izango da: bailaratik irteteko.

**"Askorendako ibarra lan egiteko da eta autopista ondo pasatzeko"**

**"Kankoan bizi denari, Debagoiena badela frogatu"**

**Goienkaria**

Argiratzalea Goien Komunikazio Zerbitzuak Kooperativa Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE  
Lehendakaria Etxepa Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria, Eneko Azkarate Errredaktore burua Iker Barandiaran Errredakcioa Mireia Bikuña, Arribux Barruso, Joxi Bereziartua Oinarritzko diseinua Goi Arana Diseinu ardurduna Ifaki Iturbe Maketazioa Kepa Martel Publizitatearduraduna Mireia Larrañaga Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazio ardurduna Agurtzane Gaiztaran

EGOITZA NAGUSIA  
BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Fax: 943 25 05 12  
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Fax: 943 25 05 12  
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABAleta 20550 Durana 11 • Tel.: 943 25 05 05 • Fax: 943 77 18 54  
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Fax: 943 25 05 09  
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-0084/04 • ISSN: 1697 3542 • Tirada: 5.000 ale

**Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria**

Gipuzkoako  
Foru Aldundia



KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria**

# Herriak

Arrasate > 14 Bergara > 16 Bergara > 16 Aretxabaleta > 19  
Eskoriatza > 19 Antzuola > 20 Aramaio > 20 Elgeta > 20 Leintz Gatzaga > 20



> **ARRASATE**  
Herritarrek Biteri plazari zein erabilera eman erabakitzeko aukera izango dute > 15



> **BERGARA**  
Jardun euskara elkarteko arduradunak kezkatuta, Arrizuriaga laga beharrean daudelako > 16



> **OÑATI**  
Eguzki energia fotovoltaikoz hornitutako gela aurkeztu dute Larraña instituan > 18



GOIKOERROTA AOBTKo kide Jon Errasti, Garazi Eriz eta Alex Mendikute Goikoerrota iturriaren ondoan.

JOSEKO ARANTZABAL

ARAMAIO > ONDAREA BERRESKURATZEKO TALDEA

## Sortzean da iraganak utzi duenaren etorkizuna bermatuko duen elkarteak

### ELKARTEA

Herriko gazte talde batek abiarazi duen proiektua da

### AUZOLANEAN

Auzolanean egin gura dituzte lanak eta taldeko kide izateko atea zabalik daude

### AURKEZPENA

Ekaina hasieran egingo dute elkarrearen aurkezen ofiziala

### JOKIN BEREZIARTUA > ARAMAIO

Aramaioko ondarea berreskurtzea. Helburu horrekin gazte aramaior batzuk elkartea bat sortu guran dabilta euren herriko ondarea betirako gal ez dadin. Sortzeke dagoen elkartea da, izapideen fasean daude eta oraindik ez dituzte euren asmoak ofizialki aurkeztu. Taldeko kideek uste dutenez, galbidean dauden hainbat elementu dago Aramaion, eta badakite lan handia dagoela aurretik. Auzolanean aritzea da taldearen asmoa.

Eurendako eta euren ostean etorriko direnendako lana egingo du elkartea. Izan ere, Jon Errasti taldeko kideak azaldu duenez, "gure herriko ondarea berreskurtzeko lanik egiten ez badugu, gure ostekoek ez dute altxor hori ezagutuko, eta betirako galduko da".

### ETXERA ETA KANPORA BEGIRA

Aramaioko Ondarea Berreskurtzeko Taldea izena hartuko du elkartea; AOBTK moduan bataiatu dute. Elkartea Aramaion ezkutatuta edo utzita dauden altxorrak azaleratu eta mantentzea du helburu, eta Aramaioko herriari zein kanpotik datozen bisitariei egingo dio mesede. Izan

### ESANAK

**"Aramaioko ondarea berreskurtzeko lana egiten ez badugu, gure ostekoek ez dute altxor hori ezagutuko, betirako galduko da"**

Jon Errasti > AOBTK taldeko kidea

ere, Errastik dioenez, "Aramaiora etortzen den jendea badago, eta lanak eurendako ere badira". Hasieran Aramaio eta inguru

### LAN METODOLOGIA

### Auzolanean eta 'politxo-politxo'

Aramaioko ondarea auzolanean eta, Errastik esan moduan, "politxo-politxo" berreskurtatu gura du AOBTK, hots, ahalik eta jende gehienaren laguntzaz eta pixkanaka-pixkanaka.

Hasteko, udara bitartean gauzatu gura dituzten hiru lan aurreikusten dituzte: Metaliturri iturria egokitu, Andra Mari ermitako eskailerak garbitu eta bide zaharra txukundu. Egiteko asko dago, presarik, ordea, ez.

ibilbideak txukuntzea zen helburua, baina ondarea hitz zabal moduan ulertzene dute, eta iturri, karobi eta bestelako altxorrak berreskurtzeko konpromisoa ere hartu dute.

### ATEAK ZABALIK

AOBTK zabalik ditu ateak elkarteko kide egitea gura duenaren dako. Gaur egun sei lagunek osatzen dute taldea, baina Errastik jakinarazi duenez, "sei lagun gara elkartea sortzeko beharrezkoaren kopurua delako, etorkizunean diru laguntzak jaso ahal izateko beharrezko dugu-eta".

Ekaina hasieran -oraindik ez dute data zehaztu- egingo dute elkartearren aurkezpena. Bertan, gauzatu gura dituzten lanak ezagutarazi eta lanotan parte hartzeko deialdia egingo dute. Hilaren 20an eta 27an ekingo diote.



Sokatiran gogor ibili ziren eskolako guraso eta irakasleak.

J.ARANTZABAL



Txikienek ere txingak eramatzen eskarmentua erakutsi zuten.

J.ARANTZABAL

OÑATI &gt; UDABERRIKO JAIA

# Errekalde Herri Eskolako irakasle, ume, gazte eta gurasoak, giro oneko lehian

Zapatu arratsaldean mota askotako jokoak egin zituzten herri eskolako guraso, irakasle eta umeek

**IKER BARANDIARAN > OÑATI**

Herenegun, zapatua, Oñatiko Errekalde Herri Eskolako ikasleek udaberriko jaia egin zuten, azken hiru urteotako ohiturari jarraituta. Helburua? Guraso, ikasle eta irakasleen artean

harremanak sendotzea eta ondo pasatzea. Hala, 140 bat umek eta 70 bat gurasok esku hartu zuten.

Lehenik eta behin, beroketa egiteko Errekalde auzoan barrena korrika egiten hasi ziren; horren ostean, txingatan, soka-

tiran, zaku lasterketan, futbitoan eta bestelako jokoetan aritu ziren. Hainbatetan gurasoak eta ikasleak nahastuta ibili ziren; beste batzuetan, berriz, bereiztu behar izan zituzten. Lehia baino gehiago, ondo pasatzea zen hel-

burua eta horixe ederto lortu zuten. Bukaera, umeei txokolatinak banatu zizkieten; eta helduek saiheski jana egin zuten. Jaia 21:30ak arte iraun zuen, eta penaz gelditu ziren parte har-tzaileak, bukatu egin zelako.



Omenduek senideak ere alboan izan zituzten San Joxepe elkartean egindako ekitaldian.

IKER BARANDIARAN

BERGARA &gt; HIRUGARREN ADINA

# Aurten 87 urte bete dituzten herritarrei omenaldia egin diete

Guztira, 45 dira aurten Bergaran 87 urte bete dituztenak; horietatik 20 izan ziren omenaldian

**I.B. > BERGARA**

Atzo, domeka, San Joxepe erre-tiratuen elkartea omenaldia egin zien aurten 87 urte bete dituzten bergararrei. 45 lagun izan ziren gonbidatuak, baina 20k bakarrik jo ahal izan zuten elkartera. Lehenik eta behin, meza entzun zuten Santa Mariako elizan; eta horren ostean,

elkartera jo zuten. Han, elkarteko arduradunez gain, senideak eta dantzariak zituzten zain.

Omenduak mahaiaren bueltan jarri ostean, dantza emanaldi laburra egin zuten Jarduneko Gazte Alai taldeko neskek. Adindunek gustura hartu zuten ema-naldia, eta txalo handiak egin zizkieten dantzariei.

**ASPALDIKO OHITURA**

Horren ostean, San Joxepeko arduradunek opariak eman zizkieten adindunei. Aurtengoa 12. aldia da omenaldi hori egiten dutena. Horren jatorria da hasieran elkarteko kideak 87 urterekin ohorezko bazkide izendatzen zituztela. Gerora, baina, herri guztira zabaldu zuten ekimena.

45 bergararretatik 32 emakumeak dira eta 13 gizonak; eta horietatik 19 San Joxepeko bazkideak.

ARETXABAleta &gt; KONTZERTUA

# Debagoieneko Musika Eskolen emanaldia

Soraluze, Eskoriatza, Arrasate, Oñati, Aretxabaleta eta Bergarako ikasleen saioak

**I.B. > ARETXABAleta**

Joan den egubakoitzean Debagoieneko Musika Eskolen kontzertua egin zuten Aretxabaletako Iturrigorri frontoian.

Honako herrietako musika eskolek esku hartu zuten: Soraluze, Eskoriatza, Arrasate, Oñati, Aretxabaleta eta Bergara, hain zuzen ere.



Argazkian Bergarako musikari gaztetxoak.

BERGARAKO M.E.

BERGARA > ASENTZIO JAIAK

# Zubiaurre-Martoko auzoan jaiak ospatu dituzte asteburuan

Auzotarrak gustura ibili dira eta antolatutako ekintzetan parte-hartzea handia izan da

A.B. > BERGARA

Asteburuan lanpetuta ibili dira Zubiaurre-Martoko auzoko bizi-lagunak. Asentzio jaiak ospatu dituzte eta zapatu goizean hasi eta domeka eguerdira arte des-kantsu barik ibili dira festan.

Jaiei salda eta txorizoa janez eman zieten hasiera zapatu goizean eta motorrak berotzen joateko txikiteoa egin zuten gero. Arratsaldean, berriz, aurreikusita ez zeuden arren, umeenda-ko jolasak egin zituzten eta auzo-

tar talde polita bildu zen horiek ikusteko. Buruhandiekin ere ederki ibili ziren, gero, auzoko gaztetxoenak. Indarrak hartzeko, ondoren, txokolatada egin zuten. Festa goizaldera arte luzatu zen zapatuau, gauean dantzaldia izan zuten-eta.

Domekan ere goizean goiz hasi ziren. Udal txistularien dia-naren ostean, San Migel ermita-ra oinez joan ziren auzotarrak, mezara. Eguedian txupinazo-rekin amaitu zituzten festak.



Zapatu arratsaldean umeendako jolasak egin zituzten.

A.BARRUSO

ARRASATE > ATZEGI

# Atzegik urteko jaia ospatu zuen zapatuan Arrasaten



Arrasateko Uarkape pilotalekuaren 130 pertsona inguru bildu ziren.



Bazkaria izan zuten lehenengo eta dantzaldia gero.

A.B. > ARETXABAleta

Atzegiko Debagoieneko batzordeak orain dela hamar urte erabaki zuen urteko festa ospatzea urtero ibarreko herri batean. Eskoriatzan egin zuten lehena eta Debagoieneko herri guztiak pasa-ta, bigarren bueltan, Arrasaten egin dute aurten jaia.

Zapatuan izan zen egun handia. Festa bazkariarekin hasi zuten. Uarkape pilotalekuaren 130 lagun inguru elkartu ziren eta bapo bazkaldu zuten. Baino, bazkaria arratsaldera arte luzatu zen; izan ere bazkalostean dan-tzaldia izan zuten. Elkarteko par-taideak egun hori noiz iritsiko zain egoten dira, urteko egun garrantzitsuenetarikoa izaten da eurendako.

## Munibeko azken erromerian, aparteko giroa

Bergarako Munibe plazako erromerien egitarauari amaiera borobila eman zioten zapatuan. Giroa berotzeko, lehenengo, kalejira egin zuten Bergarako kaleetan zehar eta ondoren afaria egin zuten Munibe plazan bertan. Antolatzaileak oso pozik daude batutako jendearekin. Ez da gutxiagorako, 200 pertsona inguru elkartu ziren-eta.

Izer, Alabier eta Lutxurdio trikitilarien eskutik goizaldeko ordu batak ingurura arte jardun zuten dantzan.



JOSETXO ARANTZABAL



Orain dela urtebete abandonatuta dagoen automobil bat, Saiolango tunelean,

IMANOL SORIANO

ZERBITZUAK &gt; UDALTZAINGOA

# Abandonatutako autoak batzen hasi da Udaltzaingoa atzera ere

Abandonatutako auto mordoxka pilatu da Arrasateko kaleetan; Udaltzaingoak 32 ibilgailu ditu kontrolatuta, baina baliteke gehiago izatea

**U.M.-> ARRASATE**  
Udaltzaingoa azken astoetan lan eta lan dabil kalean abandonatutako autoak batzeko zerbitzua atzera ere abiarazi guran. Izan ere, abandonatutako auto mordoxka pilatu dira gure kaleetan azkenaldian, "guk 32 ditugu kontrolatuta, auto eta motorren artean, baina baliteke gehiago izatea" jakinarazi dute Udaltzaingotik.

**KEXUAK IZAN DIRA AZKENALDIA**  
Orain ibilgailu horien jabeak "lokalizatzen ahaleginu" behar dira udaltzainak, auto horiek kaletik ahalik eta lasterren erretiratzeko. Izan ere, berez, Udaltzaingoaren eginbeharreko da autoak erretiratzea. Gainera, azken hilabeteotan "pilatu" egin dira abandonatutako autoak Arrasaten, eta horren harira kexu bat zein beste jaso dute udaldean. "Bat edo batzuk deitzen dute, bai, batez ere, aparkatzeko leku gutxi duten lekuetatik. Izan ere, halako lekuetan agerikoa izaten da autoa abandonatuta utzi duten edo ez, luzaroan aparkaleku okupatzen dutelako eta auzotarrak horrekin jabetu egiten direlako".

**ERDIGUNEAN ASKO**  
Udaltzaingotik emandako informazioaren arabera, herriko edozein gunetan uzten dituzte autoak abandonatuta: "Gehienak

aparkaleku arruntetan daude aparkatuta, gainera, erdiguneko kaleetan asko".

Halako aparkalekuetan uztearen arrazoia da inguruko automobilaren artean "kamuflatuta" uztea errazagoa delako. "Zarugade eta Otalora kaleen artean, adibidez, badaude lauzpabost automobil utzita. Auto horien egoe-

ra ez da horren eskasa, eta horregatik ez da horren beste igartzen. Herriko kanpoko aldeko zenbait gunetan, berriz, abandonatutako autoak askoz ere egoera eskasa-goan daude".

**MUGITU EGIN BEHAR**  
Jakina, gauza bat da automobia kalean abandonatuta uztea, eta beste bat, luzaroan kalean aparkatuta uztea.

Araudiaren arabera, autoa gura beste denboran izan daiteke kalean. Baina ez leku berean. Tarteka mugitu egin behar izaten da, batetik aparkaleku bera luzaroan okupatuta ez izateko, eta bestetik, ibilgailu hori abandonatuta ez dagoela erakusteko.

Hain justu, autoa mugitu behar horrekin kontuz ibiltzea komeni da. Izan ere, zirkulazioaren zerga eta segurua ordainduita izan behar dira autoa mugitzeko. Bi agiriak bat eguneratuta izan ezean, legez ezin da auto hori dagoen lekutik mugitu.

**BILTEGI ALDAKETA**  
Leren esandako moduan, azkenaldian pilatu egin dira Arrasaten abandonatutako autoak. Eta arrazoia da Udaltzaingoak etenaldia egin duela autoak erretiratzeko zerbitzuan. Azalpenen arabera, auto horiek gordetzeko biltegia lekuz aldatu behar izan dute. "Orain arte Zerrajerara eramatzen genituen, baina han ja ez dago lekuri. Orain leku berria behar dugu, oraindik egokitutu barik dago, eta horregatik izan dugu zerbitzua geldi; baina orain berriro hasi behar gara autoak batzen".

ARAUDIA

## Aparkaleku berean hilabetez izan daiteke autoa geldi

Hilabete. Horixe da automobia kalean aparkatuta mugitu barik utzi daitekeen epea. Hortik aurrera, "hondakin solido urbano" konsideratzen dute eta erretiratzen egin beharra dago. Jabeak ez badu egiten, Udaltzaingoa bera ipiniko da jabearekin harremanetan. Autoaren paperak eskatzen dizkiote, autoari baja eman ahal izateko. Eta behin paperak eskuartearen, autoen hilerri batzen bitartez ematen diote baja, Trafikon. Baina, Udaltzaingoari itxaron barik, egokiagoa da autoa erretiratzea erabaki duen jabea bera ipintzea harremanetan udaltzainekin. Udaltzaingora paperak eraman besterik ez du Udaltzaingoak autoa kentzeko.

HIRIGINTZA&gt; OBRAK

## Gelmako urbanizazioa datorren astean zabaltzea

Zoladura lanak egin ostean zabalduko dute, besteak beste, eraiki duten zubi berria

**U.M. > ARRASATE**

Bodoa itxura hartzen Gelmako etxebizitzak inguratzen dituen urbanizazioa. Obenerrekatik, etxeok eraikitzen dabilen enpresa sustaztakoen jakinazitakoaren arabera, "ezustekorrik ezean" datorren astean bertan kenduko dituzte Gelmako obrak ixteko ipinita dauden hesiak, eta inguru guztia zabalki utzik dute. Izan ere, zoladura botatzea besterik ez zaie

falta urbanizazio lan guztiak bukatzeko. Eta hori datorren astean egingo dutela aurreikusi dute. Edozelan ere, zoladura botatzea eguraldiaren menpe dagoela kontuan hartu behar da, eta horren ondorioz posible dela atzerapenen bat gertatzea.

Etxebizitzetan ingurua urbanizatzear gainera, besteak beste, Zubia berritu dute, errekarren alde bata eta bestea lotzen dituen Zubia.



Gelman eraiki duten ingurune berrituaren itxura, egubakoitzean.

U.M.

&gt; POLITIKA

## Paco Garciarenen lekua hartu eta Aritz Arrieta da Arrasateko PSE-EEko udal taldeko "ahots berria"

Aritz Arrieta Kabiketa (Arrasate, 1977) da Arrasateko PSE-EE udal taldeko bozeramaile berria, eta berak hartu ditu ere Hirigintza eta Obra, Zerbitzu eta Auzo batzordeen ardurak. Paco Gartzia kargu hori utzi du, eta Legebiltzarreko kide da orain. Arrieta esan duenez, "etapa berri bat" hasten da, eta "estrategia berriak aplikatuko dira, baina jarraipen ildotan barruan". Kargu berria hartzerakoan, "lan handia eta elkarritzeta egiteko, eta arrasatearren bizi-kalitatea hobetzeko" asmoa duela esan du.



ARIZMENDI

## Erizaintzako ikasketak, doan

Arizmendi Ikastolak zabaldu du datorren ikasturterako aurre-matrikulazioa (ekainaren 1-12). Besteak beste, iragari du Erizaintzaren Laguntza Osagarriak heziketa zikloa egin ahal izango dela, doan. Hain justu, erizaintzarekin gogor dabilta Arizmendin, joan den astean egin zituzten-eta erizaintza jardunaldiak Kulturaten, 71 parte-hartzailerekin.

JENDARTEA > BITERI PLAZAREN ERABILERA

# Biteri plazari zein erabilera eman erabakitzeko aukera dute herritarrek

Udalak parte-hartze esperientzia bat jarri gura du abian Foru Aldundiaren laguntzaz; bihar Udaleko pleno aretoan izango da lehen bilera, 19:00etan

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE  
*Biteriko gasolindegia deitzen dio batek baino gehiagok, plaza nola geratu den batere gustuko ez duten seinale. Arrasatearrak, oro har, ez daude konforme egungo Biteri plazarekin, eta hainbat izan dira proiektu horren inguruak kexatzen diren herritarrak.*

Bada, Udalak orain urtebete inguru proiektuaren azterketa orokor bat egitea erabaki zuen, eta azterketak bihar erdituko du lehen emaitza ukigarrria. Izan ere, Biteri plazaren erabilera funtzionala areagotzeko proiektu bat landu gura du Udalak, herritaren parte-hartze esperientzia baten bidez.



Biteri plazaren egungo egoerak hainbat kexu sorrarazi ditu arrasatearren artean.

Udaleko pleno aretoan egingo den lehen bileran. Arratsaldeko zazpietan hasiko da.

## GURA DUENARENDAKO IREKIA

Udalak "proiektuan interesa duten guztiei" deitzer die ekimenean parte har dezaten. Izan ere, prentsa ohar baten bidez jakinaztu duenez, "herriarentzat egitasmo garrantzitsua izanik, herritarren lehentasun iritzi eta ekarpenak kontuan harturik bideratutako proiektua" izatea lortu gura da.

Bihar izango den bilera irekian hainbat gai jorratuko dituzte. Lehenik, herritarren parte hartze moduari buruzko argibideak emango dira, eta gero, Udalak proiektuarekiko dituen helburuak ere zehaztuko dira. Azkenik, herriko taldeean zein herriko taldeetan parte hartzen ez duten arrasatearren iritzi eta ekarpenak ere jasoko dira. Bestalde, bigarren bilera eztabaidatzeko fazearekin hasiko dira.

Ekimenaren gaineko argibide de gehiagorako 943 31 00 34 telefona deitu edo [siajeco@siajeco.net](mailto:siajeco@siajeco.net) helbidera idatzi behar da.

MUSIKA > ARRASATE MUSIKAL

# Kontzertu uholdea, ikasturteari merezitako amaiera emateko

Guztira lau kontzertu eskainiko ditu asteon Arrasate Musikalek; musika tresna ezberdinak jotzen dituzten eskolako ikasleek joko dute

J.B. > ARRASATE

Heldu da urte osoan zehar ikastakoa lau haizeetara zabaltzeko ordua, hots, heldu da ikasturte amaiera. Eta, urtero moduan, Arrasate Musikalen egutegia kontzertuz betetzen da, beste hainbat musika eskoletan gertatzen den moduan. Bada, gaur eta etzi bitartean lau kontzertu eskainiko dituzte.

## GAUR ETA BIHAR HAIZEKOAK...

Gaur eta bihar haizezko instrumentuak izango dira protagonista. Bi kontzertu izango dira: batek, saxofoi ikasleek Monterron jauregian eskainiko dute emanaldia: gaur, 19:00etan. Arrasate



Tronpeta, fliskorno eta tronpa ikasleek bihar joko dute Kulturaren...

tzeko metodologiarik egokiena aplikatzeaz arduratuko den bitarteak. Hala, bihar, maiatzak 26 jarriko da martxan egitasmoa,

EMAKUME TXOKOA

## Homofobia salatzeko, zinema jardunaldia

Dokumental bat eta lau laburmetrai ikus ahalko dira egunean Amaian

J.B. > ARRASATE

Emakume Txokoak eta Arrasateko Udalak homofobiaren aurkako zinema jardunaldia antolatu dute. Horretarako Aldarte gay, lesbiana eta transexualen arreta zentroaren laguntza jaso dute. Zinema jardunaldia egunean izango da Amaia antzokian, 20:30ean hasita.

## BADAGO ZER IKUSI

Aldarteko kide batek zinema jardunaldiaren aurkezpena egin ondoren, dokumental bat eta lau laburmetrai izango dira ikusgai: Lovinza Kavumak zuzendutako *Rape for who I am* (2006) dokumentala eta *Pitou* (14'), *Dyke* (9), *El día de la Madre* (14') eta *Lencería de ocasión* (11') laburmetraiaik.

> ERRETIRATUEN EGUNA  
**Bazkariko txartelak eskuratzeko azken eguna, bihar**

SUDC elkartea antolatzen duen Erretiratuen Eguna zapatuan ospatuko da. Eta egun berezi horretako ekitaldi nagusia Musakolako kiroldegiko bazkaria da, zalantza barik. Izan ere, 1.000 erretiratua inguru batzen dira mahaiaren bueltan.

Bada, bazkarirako txartela hartzeko azken eguna bihar izango da, edozein erretiratuetan. Bazkarira joateko autobusak etengabe ibiliko dira joan-otorrian.

> ZUZENEKO EKITALDIAK  
**'Erregea eta Bufoia' eta 'Euskaldun bat espazioan', MU**

Ekitaldi kurioso bezain interesgarrietzagozatko aukeera izango da asteon Goi Eskola Politeknikoan. Izan ere, gaur Amets Arzallus bertso-laria eta Ander Lipus aktoreak *Erregea eta bufoia* izeneko saioa eskainiko dute, BIN areto nagusian, 18:45ean. Bestalde, eguztenean Josu Feijooek *Euskaldun bat espazioan* hitzaldi kuriosoa emango du leku eta ordu berean.

Musikaletik iragarri dutenez, ikasle dezentek hartuko dute parte Mario Fernandinok zuzenduko duen saioan. Eta, bestetik, bihar tronpeta, fliskorno eta tronpa jotzen duten ikasleek Kulturaren eskainiko dute kontzertua. Kontzertua 18:30ean izango da, eta Ramses Uralde, Edorta Ayastutu eta Gaizka Gaztelurrutia dira ikasleon arduradunak.

**...ETA ETZI GITARRAK ETA PIANOAK**  
Eguaztenean gitarra eta piano ikasleen txanda izango da. Gitarra joleek Kulturaren joko dute 18:00etan, Asun Auzmendi musika irakaslearen gidaritzapean. Eta azkenik, piano ikasleek Bergarako musika eskolan joko dute, 18:30ean. Piano joleen arduradunak dira Isabella Blezien eta Raquel Hernandez.

Oier Bolibar > Jardun elkarteko presidente

# "Arrizuriaga laga beharrean gaude eta ez dugu, oraingoz, irtenbiderako alternatibarik"

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Jardunek elkartearen etorkizunazeta jarraitu beharreko lan ildoaz jarduneko gogoeta saioa egin zuen aurreko zapatuan. Oier Bolibarrek eman digu haren berri.

**Gogoeta saioa egin zenuten zapatuan. Zergatik antolatu zenuten?**

Garai berrikin batera behar berriak sortzen dira, eta, ondorioz, gure lan ildoen inguruan hausnartzeko beharra sumatu genuen. Hala, gogoeta saio honen helburu nagusia izan da burutzen ditugun ekintzak aztertzea eta etorkizunerako elkartearen izatearekin bat datozen berriak zehaztea.

**Eta, nola joan zen?**

Oso gustura gelditu ginen joandako denok jarraitutako lan ildoarekin eta lortutako emaitza-rekin. Zabalpena eta deialdia bazkide guztientzat egin zen arren, esfortzu berezia egin genuen elkarteari ekarpenean eraginkorrak egingo zizkioten bazkideak biltzen saiatzen. Azkenean, 25 bat pertsonako lantaldea batu ginen.

**Bertaratutakoek ekarpenak egin zituzten, hortaz.**


Saioaren helburu nagusia horixezen, gerturatutakoekin ekarpenak jaso, kokatu eta ekarpen horietatik ekintza konkretuak definitza. Metodologia bat definitu genuen aurrez saioan lantze-ko; eta hala egin genuen, gerturatutako guztiak egin zituztelako ekarpenak. Azkenean, guztiok izan ziren ekarpenak eta guztiok definitu genituen etorkizunerako ekintzak eta lan ildoak.

**Oro har, bazkideek nola ikusten dute Jardun gaur egun?**

Gaur egun, Jardun biziak dagoen elkartea da. Hainbat esparrutan jarduten dugu euskaran alde eta, batez ere, euskaraz bizi izatea ahalbidetzen. Hala ere, agian ezagunagoak gara aisiaaldi-ko ekintzen esparruan zerbitzua ematen dugulako beste ekintza batzuk erabili baino; eta hori, adibidez, indartu beharreko puntu bat dela adostu genuen.

**Zer gehiago adostu zenuten?**

Adostutako ondorioetako bat izan zen Jardunek gaur egun betetzen dituen egitasmo eta ekintze-kin bere horretan jarraitu behar duela. Hala ere, beste esparru batzuk lantzen hasi beharra daukagu eta gaur egun ditugun beste batzuk indartu. Beste elkartebatzuekin ekintza batzuk elkartean egiteko aukera ere ez dugu bantzertzen. Gaur egungo gizartearen beharretara egokitutako beharra daukagu, eta horretarako lan egiten jarraituko dugu.



Oier Bolibar.

MONIKA BELASTEGI

**"Ezagunagoak gara aisiaaldi zerbitzua ematen dugulako beste ekintza batzuengatik baino, eta hori indartu beharreko gauza da"**

**"Gizartearen beharretara egokitutako beharra daukagu, eta horretan dihardugu"**

Izan ere, garaiak oso azkar aldatzentzat dira gaur egun. Jardunek jakin du garai berrieta-ra egokitzen?

Aurretik nioen moduan, garai berrieta-ra egokitzen beharra ere sumatuta genuen. Orain arte, behar berriei erantzuna ematen jakin dugula esango nuke, baina aldaketa etengabea da, eta aldaketa etengabea moldatzentzat jakin beharra dago. Ildo horri heltzeko ideiak eta ekintzak ere definitu genituen.

**Eta zuzendaritzak nola ikusten du elkartea?**

Oso biziak ikusten dugu, eta ildo berriak lantzeko gogoz. Hala ere, haize freskoaren beharra

sumatu genuen, ideia eta asmo berrien beharra, eta saio honek gure helburuak bete ditu. Orain, zuzendaritzza, Jarduneko lantalde eta bazkide ororena da erronka, definituriko ekintza guztiak aurrera eramatzen eta gauzatzeko.

**Nola gauzatuko duzue zapatuan adostutako guzta?**

Jardun herriarentzat lanean dabilen elkartea da, eta etorkizunen ere lanean jarraituko du, unean uneko beharretara egokituz.

Hala ere, ideia, asmo eta ekintza guztiak aurrera eramatzen osoa nagusi batekin egin dugu topo behin eta berri. Gure aisiaaldi, ikastaro zein hainbat egitasmo Arrizuriagako jauregian eginen ditugu. Etorkizunari begira Udalak dituen asmoekin, epe oso motzean eraikina utzi beharrean aurkitzen gara eta ez daukagu, oraingoz, mahai gainean irtenbide osoa emango digun alternatibarik. Ideiak ditugu eta baita lane-rako gogoa ere, baina ideiok gauzatzeko eraikin egoki gabe gelditzeko beldur gara. Epe motzean mahai gainean dugun arazo larriena da hau. Udalarekin harremanetan gaude arazoari irtenbidea emateko, baina gauzak luze-egi doaz eta denbora gainera dator-kigu. Hurrengo kurtoa hasteko leku egoki baten beharra dugu.



Berbalaguneko kideak gatz museoan.

GOIENKARIA

EUSKARA > JARDUN ELKARTEA

## Gatz museoa ezagutu dute Berbalagun egitasmokoek

Bailara ezagutzeko irteera egin dute, euskaraz mintza praktika egiten zuten bitartean

M.B.> BERGARA

Berbalagun egitasmoko 11 lagun Leintz Gatzagan izan ziren aurreko zapatuan. Arrasateko Zahar Berri egitasmoko kideekin batera joan ziren.

Batetik, mendian barrena ibilbidea egin zuten eta, bestetik, gatz museoa ikusi zuten: autoz Gure Ametsa jatetxeraino joan ziren eta han, Arrasateko Zahar Berriko kideak eta Leintz Gatzagako gida turistikoa zitzuten zain. Autoak han lagata, Hiru Erreketa hurbildu ziren. Gero, baserrietan barrena Dorletako ermitaraino heldu ziren. Bukatzeko,

gatz museoa ikusi zuten eta baita ogitarteko ederra jan ere, lagun artean.

**MASAJE IKASTAROA**

Jardun elkarteari masaje ikastaroen antolatu du. Ekainaren 4an, 11n, 18an eta 25ean izango da, 19:00-21:00 ordutegian, Aranzadi ikastolako psikomotrizitate gelan, eta eskolak Alaitz Badiolak emango ditu.

Izenematea da hilaren 28a baino lehen, Jardunen bulegoan (kultura etxea) edo 943 76 36 61 telefono zenbakian. Prezia da 17 euro baziideendako eta 20 gainerakoendako.

## txaloak eta txistuak



JOSETXO ARANTZABAL

## Plazatxo "erabat lagata" dagoela diote auzokoek

Ibargaraiko plazatxo horren bueltan dauden zazpi atariak kexu dira haren egoeraz. Erredakziora etorritako auzotar batek helarazi digu kexua: "Zorua oso kaskar dago, eserlekuak zaharkituta... Plazatxo egin zutenetik, duela hogitaka urte, ez dute berri, eta behar handia dauka. Denbora da konpontzeko eskaria egin duguna Udalean, sinadurak aurkeztu ere bai, baina ez dute kasurik egin".

INGURUMENA > ESKOLA AGENDA 21

# Ura zaintzeko proposamenak egin dizkiete ikasleek alkateari eta Ingurumen sailari

Herriko ikastetxeetako ikasleak Eskola Agenda 21 lantzen dabilta azken lau urteotan

Proposamenak entzun eta gero, Udalak agindu die Uraren Astea antolatzea irailean

MONIKA BELASTEGI > BERGARA  
Aurreko eguztenean batzartu egin ziren herriko ikastetxeetako –San Martin, Aranzadi, Mariaren Lagundia, Ipintza eta Miguel Altuna– ikasleak eta Udal ordezkariak, alkate eta Ingurumen zerbitzuko ordezkariak, hain justu ere.

Azken lau urteotan Eskola Agenda 21 programan murgilduta daude ikasleak eta ikasturtea bukatzeaz dagoenez, egindako lanaren berri ematera joan ziren. 80 ikasle inguru batzartu ziren Agurne Barruso alkatearekin eta Ingurumen zerbitzuko ordezkarien eta egindako lanaren berri emateaz gain, ura zaintzeko proposamenak ere egin zizkieten.

**AZTERKETA SAKONA**  
Ura da Eskola Agenda 21en barruan ikasleek aurten lantzen jardun duten gaia –iaz ekin zioten gai horri-. Hala, herrian ura-



Udaleko ordezkariekin batzartu aurretik, ikasleek ondo prestatu zuten batzarra. Irudian prestakizun lanetan.

GOIENKARIA

ren egoera nolakoa den aztertu dute, uraren zein erabilera egiten den, nola kudeatzen den eraikin publikoetan eta baita erreka zein egoeratan dagoen ere.

Horrez gain, herriko iturriak ere aztertu dituzte eta baita uraren fakturak eta herrialdeko plumbometria landu ere.

Herriko diagnostiko horretatik hainbat datu aipagarri atera dituzte ikasleek. Esaterako, jabetu dira iturriek ura oso fuerte bota-

tzen dutela eta hainbat apurtuta daudela. Udal instalazioei dagokionez, Agorrosinera egindako bisitaldian jabetu ziren, besteak beste, ur edangarrria erabiltzen dela instalazio osoan. Eta prezpitazioen kasuan, egiten duen euri guztiarekin, ur hori aprobetazen ez dela ere ikusi dute.

**UDALAREN ERANTZUNA**  
Diagnostikoa zein Udalaren dako proposamen zerrenda buletin

batzen jaso dute ikasleek, eta Udal ordezkariei banatu zieten eguzteneko batzarrean.

Udal ordezkariek adi entzun zitzuten ikasleen azalpenak eta erantzun gisa esan zien irailean Uraren Astea antolatuko dutela. Eta gehitu zuten aste horren bai-an banatuko dutela etxetan ura aurreztekoei sistemenean gaineko informazioa, hitzaldiak antolatuko dituztela eta erreka garbitzera joateko eguna ere deituko dutela.

## PROPOSAMENAK

**KANPAINAK**  
► Etxeetan ura aurreztekoei dosifikatzaileak banatzea.  
► Hitzaldiak eta erakusketa egitea.  
► Ingurumenaren gaineko aldizkaria kaleratzea.

**ITURRIAK**  
► Sentsoredun iturriak jartzea.  
► Toki publikoetako iturrien temporizadoreak erregulatu denbora gutxituz, eta ez dutenei, jarri.

**ERREKAK**  
► Erreka inguruan zakarrontzi gehiago jarri.  
► Erreka ondoan txabolak egitea debekatu.  
► Hilero erreka aztertu.

**BESTEAK**  
► Igerilekuaren egunero berritzen den ura futbol zelaia ureztatzeko erabiltzeaz gain, beste gauza batzuetarako ere erabiltzea.  
► Euri ura jasotzeko biltegiak egitea.  
► Zubiaurre kaleko hodiak konpontzea.  
► Estolderiak garbi mantentzea eta araztegira hondakin gutxiago iristeko zulo txikiagoak jartzea posible den aztertzea.  
► Langileek ez dezatela ura alperrik gastatu. Eredu izan daitezela.  
► Euri ura berreskuratzeko sistemaren bat jartzea eta herria garbitzoko erabiltzea.  
► Udalak uraren berrerabilpenean gehiago inbertitzea.  
► Gastatzeko ur kopuria jartzea eta pasatzen denari isuna ipintzea.

PAZKOAK > JARDUNEN ZAPI LEHIAKETA

## Pedro Garitanoren marrazkia eta Paula Marcosen leloa eroango ditu jaietako zapiak

Marrazkiaren oinarria dira Domingo Irala kale berrituko farola handiak; leloak dio 'Gau eta egun euskaraz jardun'

M.B. > BERGARA  
Jardun euskara elkartea jakitera eman ditu Mendekoste jaietako zapirako marrazki eta lelo lehiaketaren irabazleen izeanak: marrazkiaren irabazlea izan da Pedro Garitano 72 urteko bergarra, eta leloarena 9 urteko Paula Marcos, bergararra hori ere.

**SALBUESPENA**  
Bi sari ematea ezohikoa da. Lehialketa eta saria bakarrak izaten dira; hau da, marrazkia eta leloa biak hartzen dira kontuan eta sari bakarra ematen da. Hala eta guz-



Garitanoren marrazkia.

katzen ditu Domingo Irala kaleko farola berriak, hainbat musika notarekin lagunduta, besteak beste.

Paula Marcos neskatoaren leloak dio: *Gau eta egun euskaraz jardun*, eta euskarari eta Jardun euskara elkarteari ere egiten dio erreferentzia modu implizituan.

Biek ala biek 60 euroko saria jaso dute.

### ZAPIAK JAIETAN SALGAI

Jardun elkarteko ordezkarien esanetan, pozik daude lehialketa jaso duen erantzunarekin; izan ere, 17 lagunek hartu dute parte.

Zapiei dagokienez, jaietako egubakoitz eta zapatauan egongo dira salgai San Martin plazan, hiru euroren truke.

Bestetik, *Gau eta egun euskaraz jardun* leloa daramaten 3.000 pegatina ere banatuko dituzte, doan.

tiz ere, epaimahaia erabaki du auren salbuespna egitea eta marrazkia eta leloa, bakoitz bere aldetik saritzea.

**MARRAZKIA ETA LEOA**  
Goiko irudian ikus daiteke Pedro Garitanoren marrazkia. Irudi-

## PAZKOAK

### Pazkoetan meza abestua egongo da

M.B. > BERGARA  
Pazkoetako domekako meza nagusia berezia izango da. San Pedro parrokian izango da, 12:30ean eta Bilboko katedraleko koruak eta orkestrak hartuko dute parte. Mezan honako obrak joko dituzte: *Cantemus Domino* (G. Carissimi), *Missa Choralis* (L. Refice), *Aleluya* (A. Sagaseta), *Tu es Petrus* (H. Eslava), *Himno eucaristico* (L. Aranburu) eta *Regina Coeli* (P.J.D. de Santa Teresa).

Horrez gain, egun berean kontzertua ere egingo dute bitaldeek Santa Marina parrokian. Oscar Gonzalez Gasquetek zuzendaritzapean arituko dira eta hamaika obrako emanaldia egingo dute. Kontzertua izango da 19:00etan.

## oharrak

### MUSIKA ESKOLA

**> Miserableak ikuskizuneko cd-a eta dvd-a eska daitezke**  
Musika Eskolan egin daiteke eskaria, maiatzaren 28a aurretik, 15:30-19:30 ordutegian. Cd-aren prezia da 7 euro (5 taldekideendako) eta dvd-arena, 15 (13 taldekideentzat).

### HITZALDIA

**> 'Kubako Iraultza atzo eta gaur' izeneko hitzaldia**  
Bihar, martitzena, izango da 19:00etan Miguel Altunen. Hitzaldia egingo dute Yoelkis Sanchez Asamblada Nazionaleko kideak eta Jesus Etxeberrya Camagüeyko Kubatar iraultzaren borrokalarien elkarteko zuzendaritzako probintzialeko lehendakariak.

### HAUTESKUNDEAK

**> Europako hauteskundeetan postaz bozkatzeko laguntza**  
Postaz bozkatzeko bulegoa jarri du EAJk Bidekurutzetan –Carmen Garate poltsa denda zegoen lekuaren–. 11:00-13:00 eta 18:30-20:30 ordutegia izango du. Eskaeretarako mugaeguna da hilaren 28a.

HEZKUNTZA &gt; IKASGELA BERRIA

# Eguzki energia fotovoltaikoz hornitutako gela Larrañan

Ekigunea gela hornitzeko 12 eguzki plaka jarri dituzte ikastetxe kanpoan

15 langabek 95 orduko ikastaroa egin dute martxoan eta apirilean Larraña Institutuan

**T. MADINA/M. BIKUÑA > OÑATI**  
Larraña Institutua energia fotovoltaikoz hornitutako ikasgela autonomoa aurkeztu zuen aurreko astean. Hain justu ere, Ekigunea delako ikasgela. Aurkezpen ekitaldian egon ziren Larraña Institutuko zuzendari Kepa Altube, eta zuzendariorde Eduardo Sudupe, eta Ekaín enpresako ordezkari Fernando Bengoetxea.

## 12 EGUZKI PLAKA

Duela lau urte hasi ziren Larraña Institutuan eguzki energia fotovoltaikoa eta haize errota bidezko energia lantzen dituzten ikastaroak ematen, baina ikasturte honetan pausu berri bat eman dute, Ekigunea delako gela sortuz. Ikasgela autonomoa eguzki energia fotovoltaikoz hornitze-ko 12 eguzki plaka jarri dituzte institutuaren kandoaldean. Bes-



Argazkian, Kepa Altube, Eduardo Sudupe eta Fernando Bengoetxea aurreko asteko prentsurrekoan.

LARRAÑA

talde, gelako hornidura ez ezik argiztapen guzti eraberritu dute, kontsumituko dutena ekoizteaz gain, baita aurreztekoko ere.

## ARRAKASTATSUA

Proiektua aurrera eroateko, Foru Aldundiaren Sarbideak egitasmoaren barruan martxan jarritako ikastaroaz baliatu dira Larrañakoak. Ikastaroa martxoa eta apirila artean eman dute, eta guztira 15 langabek parte hartu

dute energia fotovoltaikoaren gainerako ikastaroan. Arduradunek esan zuten, Debagoienean, baina batez ere Oñatin, energia berritzagarien inguruan dagoen interesaren adierazle dela ikastaroak izandako arrakasta. "Langabe askok eman zuten izena; hain justu ere, gehienezko ikasle kopuruaren bikoitzak. Batzuk ikastaroa egin barik geratu dira", esan zuen prentsurrekoan Larraña-ko zuzendari Kepa Altubek.

## EKIMEN BERRIAK

Larraña Institutua Ekain enpre sarekin elkarlanean egin du ikastaroa. 95 orduan energia fotovoltaikoan eman daitezkeen aplikazio gehienak landu dituzte; besteak beste, sareari lotutako sistemak eta sistema isolatuak.

Larrañako zuzendariak esan zuen energia berritzagarien eta naturarekin zerikusia duten ekimenekin jarraitzeko asmoa dutela aurrerantzean.

## UDALA

# Herritarren asebetetzea ezagutzeko inkestak

Inuesta batzuk telefono bidez egingo dituzte eta bestea batzuk postaz

**M.B. > OÑATI**

Herritarren gogobetetze mai- la nolakoa den jakiteko inkestak egingo ditu Udalak. Besteak beste, herritarren parte hartzearekin prozesuak abiarazi gura dituzte. Dagoeneko hasi dira inkestak egi- ten Gizarker enpresako kide- ak: batzuk telefonoz egiten dihardute, eta beste batzuk posta bidez bidali dituzte etxeetara. Telefono bidezko inkestak 47 galdera ditu eta etxeetara bidalitakoak 12 atal. Bietan, 0tik 10era baloratu beharko dute 11 esparru ezberdin; hain justu ere, kul- tura, kirola, gizarte zerbi- tzuak, segurtasuna, lanak eta zerbitzuak, euskara, hiri- gintza, ingurumena, osasuna, enplegu eta gazteria.

## IRADOKIZUNAK ERE BAI

Bestalde, udal zerbitzuek egiten duten lana baloratu beharko dute herritarrek; besteak beste, Udalak lanpostuak sor- tzeko egiten duen lana, gaz- teendako antolatzen dituzten ekimenen kalitatea edo kan- poko enpresak erakartzeko egiten duten lana baloratu beharko dute.

Galderak erantzuteaz gain, etxean inesta jasotzen dutenek iradokizunak egiteko aukera izango dute.

## oharrak

**GIZARTEA > AUTOBUS IBILTARIA**

# Batzar Nagusietako autobusa ikusgai dago plazan gaurtik zapatura arte

**M.B. > OÑATI**

Gipuzkoa oinarri, Gipuzkoako helburu lelopean Gipuzkoako Batzar Nagusietako autobusa heldu da Oñatira. Gaur zabaldu ditu ateak eta zapatura arte ikusgai eta erabilgarri egongo da herritar guztiendako. Hain justu ere, 09:30etik 14:00etara eta 16:00etatik 19:30era arte egongo da zabalki. Batzar Nagusietako autobusa plazan jarriko dute ikusgai.


Autobusak egiten dihar- duen ibilbidearen helburua erakundeak ezagutzen ematea da; besteak beste, dituen balo- reak sustatu gura dituzte. "Autobus tematikoa da, infor- mazio eta formazio digitalera- ko zentro mugikorra da", esan zuen autobusaren aurkezpe-

nean Batzar Nagusietako presidente Rafaela Romero arra- satearrak.

## 12 ORDENAGAILU

Autobusak telebista pantaila handia du. Bisitan doazenei erakundearen historia eta egungo zereginaren gainerako bideoa jarriko diete. Bestalde, 12 ordenagailu daude eta horietan hainbat jarduera ludikoen bidez erakundeak barrutik ezagutzeko aukera izango dute bisitariek, Mira- mongo teknologi parkera hurbildu barik.

Herritar guztiendako zabalduko dute autobusa. Era berean, herriko ikastetxetako ikasleekin saio bereziak egin- go dituzte.



ERREKALDE HERRI ESKOLA

## Bertsolaritza lantzko proiektua

Errekaldeko eta Zuazola-Larrañako ikasleek bertsolaritzaren gainerako proiektua landu dute. Ahozko komunikazioa lantzko bertsolaritzaren gainerako hainbat baliabide erabili dituzte. Proiektuari bukaera emateko ikasle guztiak jaialdia egin zuten Santa Ana antzokian. Argazkian partaide- etako batzuk: Jone Etxeberria, Mikel Kalboetxeaga eta Unai Beitia.

## HITZALDIA

### > Berdintasunari buruzko hitzaldia egingo dute erretira- tuen elkartean

Emakundeko zuzendari ohia Izaskun Moiua oñatiarrak egingo du hitzaldia bihar martitzena, 17:00etan. Berdintasunari buruz egingo die berba Pake Lekura joaten direnei.

## HITZALDIA

### > Agresibitateari buruzko hitzaldia Elkar Hezin

Agresibitatea nerabeen- gan delako hitzaldia egingo dute bihar Elkar Hezi ikaste- txeko Santa Marinako media- tekian, 18:30ean.

Bestalde, Juan Kruz Ige- rabide idazleak metamorfosi kontzeptua azalduko die Elkar Hezik DBHko ikasle- ei bihar, 15:00etan Santa mari- nako eraikinean.





Eskola kirolean parte hartzen duten Aramaioko neska-mutilak.

SUSANA SANTOR

ARAMAIO &gt; KIROLA

## Leintz eskola kiroleko azken jaia, Aramaion

Ikasturteari amaiera borobila emateko festa polita egingo dute datorren zapatuan

ARRITXU BARRUSO &gt; ARAMAIO

Aurten Aramaion ospatuko dute Leintz eskola kiroleko azken jaia. Datorren zapatuan izango da, maiatzak 30, eta Leintz eskola kiroleko ekintzetan parte hartu duten ikasle eta gurasoei zuzendutako jaia izango da.

Goizeko hamarretan hasiko dituzte ekintzak. Lehen Hezkuntzako lehenengo eta laugarren maila bitarteko ikasleendako patinaje jolasak egingo dituzte

frontoian. Baino gurasoek ere patinak jantzi ahal izango dituzte, haietan jolasetan parte hartzeako aukera izango dute-eta. Eta amaieran, patin sugea egingo dute frontoitik herriko plazaino.

Lehen Hezkuntzako bosgarren maila eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren maila bitarteko umeek orientazioziorako daukaten abilezia erautzik beharko dute. *Orienting*

proba egingo dute; Aramaioko herrian zehar eta auzoetan ibili beharko dute, mapa baten laguntzarekin, proba desberdinak gainditzen.

Proba horiek guztiak gainditu ostean festarako garaia iritsiko da. 12:00etan, herriko plazan, ekitaldi nagusia egingo dute. Hasteko, garaikurrak banatuko dizkiete Lehen Hezkuntzako hirugarren maila eta seigarren maila bitarteko txapelketetan garaile izan diren neska-mutilei. Ondoren, oparien zozketa egingo dute. 13:00 inguru amaituko da festa.

ANTZUOLA &gt; JOLASTOKIAK

## Pista beltzaren ondoan parke berria ipini dute

Eguzki auzoaren eta Beheko auzoaren artean zegoen pista gorria konpondu eta pista beltz bihurtu zuten. Kirolerako eta jolaserako gunea izanik, jolastoki berria egokitutako dute umeendako. Egurrezko trentxoa eta zenbakiek dituzten arbelak ipini dituzte parke horretan. Guztira 8.000 euroko kostua izan dute lanok. Azkenaldian, hainbat parke berri eta jolasgune berriak ipini dituzte herrian, eta Udaletik esan digute oraingo jolasguneetako konponketak amaitu dituztela.



IRATI AGIRREAZALDEGI

ELGETA &gt; ERRETIRATUAk

## Meatzaldera irteera antolatu dute erretiratuendako

Asteon Abadiñon egingo dute ibilaldia, eta hamar laguneko erretiratu taldeak igeriketa ikastaroa egiten dihardu

IRATI AGIRREAZALDEGI &gt; ELGETA

Herriko erretiratuak batera eta bestera dabiltsa azkenaldian, eurek antolatuta zein beste era-kunde batzuen laguntzaz ekin-tza nahikoa dituzte-eta.

Eguaztenean, maiatzaren 27an, Abadiñoko Gaztelu auzora egingo dute irteera, arratsaldez. 15:00etan Ozkarbi elkartetik abiatuko dira Abadiñora autoz, eta han, bakoitzak ahal duen neurriko ibilaldia egiteko aukera izango du.

Bestalde, hilaren 20an hasi zuten herriko hamar erretiratuk igeriketa ikastaroa Bergaran, Agorrosinen. Bi asteko ikastaroa izango da eta 11:00etan 12:00etara jardungo dute

igerian. Elgetako Udalak bultzatutako jarduera da, eta, berta-ko ordezkarien esanetan, "Uda-larendako garrantzitsua da kirolaren praktika sustatzea adin guzietan, baita adinekoen artean ere. Bai prebentzio ikus-puntutik, baita elgetarrak aisiaidia era osasuntsuan goatzeko ohiturak bereganatzeten joan daitezen ere", dio Kirol zinegotzi Rebeka Uberak.

BIZKAIRA EKAINAREN 2AN

Aisiaidiaz goatzeko beste hitzordurik ere badute erretiratuek. Izan ere, Kutxaren esku-tik Bizkaiko Meatzaldera irteera egiteko aukera izango dute-la jakinarazi digute erretiratuen elkartekoek.

Ekainaren 2an, martitzena, goizean goiz abiatuko dira Bizkaia alderia. 08:30ean dute hitzordua herriko plazan, eta 08:45ean irtengo dira.

Interesatuek Kutxako bule-gora jo beharko dute izena ema-tera maiatzaren 27a baino lehen. Ordaindu beharreko 36 euro izango da.

LEINTZ GATZAGA &gt; GIZARTE ZERBITZUAK

## Eulen enpresak ematen du etxerik etxeeko zerbitzua

Bi gatzagarrek bakarrik daukate zerbitzu hori; argibide gehiago gura duenak udaletxera jo dezala, Gizarte Zerbitzuen bulegora

MIRARI ALTUBE &gt; LEINTZ GATZAGA

Apirilean egin zuen lehiaketa deia Bideberri mankomunitateak etxerik etxeeko zerbitzua esleitzeko. Hiru enpresa aurkeztu ziren deialdi hartara: Goiz-Argi, Bizitzen eta Eulen. Eta azken hori hautatu zuten Bideberri mankomunitateko arduradunek Antzuolan, Elgetan eta Gatzagan zerbitzua emateko.

Azken urteotan GSR enpre-sak zuen etxerik etxeeko zerbi-tzuaren ardura Gatzagan, baina ez zen aurkeztu lehiaketa-ra. Bi urterako hartu dute orain Eulen eta kontratua bukatu aurretik beste bi urte luzatze-ko aukera eskainiko diote, bi aldeak gustura egonez gero.

ESKAERAK UDALETXEAN

Etxerik etxeeko zerbitzu barruan laguntza pertsonala -norberaren garbitasuna...

eta- etxerako lanak egiteko laguntza -baskaria, garbitasun lanak...- eskaintzen ditu Eule-nek. Gatzagan bi lagunek baka-rrik daukate zerbitzua. Hala ere, bietako edozeinen beharra duten herritarrek udaletxean dagoen Gizarte Zerbitzuen bule-gora jo behar dute eskaera egi-teko. Martitzen goizetan egoten da Ainara Gabilondo gizarte laguntzailea bulegoan eta ez dago eperik eskaerendako.

Udaletik Aldundira bidera-ten dute gero egindako lagun-tza eskaera, eta hark mendeko-tasunaren balorazioa egingo dio eskatzaileari. Aldundia da zenbat orduko laguntza behar duen zehazten duena; gehienez ere hiru ordukoan egunean.

Beste balorazio bat ere egi-ten du Aldundiak, erabiltzaile-ak zenbat ordaindu behar duen zerbitzua zehazteko.


# Kirola



> **FUTBOLA**  
UDAK 3-0 irabazi zuen  
Mondraren kontrako  
derbia Ibarra futbol  
zelaian > **23**



> **FUTBOLA**  
Erregional mailako finala  
irabazi zuen Bergarak  
Oiartzunen kontra  
zapatuan > **24**



> **PILOTA**  
Herri Arteko Pilota  
Txapelketako  
finalditarako sailkatzu  
dira bergararrak > **25**



IRABAZLEA Ricky Lighfoot Zegamako helmugra heltzen zaleen txalo artean.

MIKEL ZABAleta



ANIMUAK Asier Sagastizabal oñatiarra.

GOIENKARIA



IBARREKO Aritz Kortabarria.

GOIENKARIA

MENDIKO LASTERKETAK > ZEGAMA-AIZKORRI

## Lightfoot azkarrena Zegaman, eta Kortabarria ibarreko onena

### AZKARRENA

Irabazleak 4:03:12ko  
denbora egin zuen

### DEBAGOIENDARRA

Aritz Kortabarria  
arrasatearra  
hamargarren tokian  
sailkatu zen

### MIREIA BIKUÑA > ZEGAMA

Zegama-Aizkorri mendi maratoia irabazteko hautagai nagusi Kilian Jorneten faltan Ricky Lighfoot izan zen azkarrena atzo helmugan (4:03:12). Haren atzetik heldu ziren Paolo Larger eta Ricardo Mejia. Emakumeen artean Emanuela Brizio izan zen azkarrena, eta emakumeen proban errekor berria ezarri zuen: 4:38:19.


Bestalde, irteera hartu zuten 21 debagoiendarren artean azkarrena Aritz Kortabarria arrasa-

tearra izan zen: 4:16:13ko denbora eginez hamargarren tokian heldu zen helmugara.

### URBIATIK BEHERA

Behe-lainoarekin eta sirimiria-rekin hasi zuten proba 09:00etan. Otzurtera heldu orduko hiru korrikalari jarri ziren buruan: Ricardo Mejia, Agustin Roc eta Fernando Olabarria. Aizkorriko denbora kontrol guztietan azkarrenak izan ziren, eta Aizkorriko ordena berdinian heldu ziren.

Aitzuriko denbora kontrola pasa ondoren, Agustin Roc-ek proba utzi zuen. Oltzen Mejia mexikarra izan zen azkarrena, eta proba irabazteko hautagaia zela zirudien. Baina Urbiatik behera Ricky Lighfootek bat egin zuen mexikarrarekin eta lehia estua izan zuten azken kilometroetan. Mexikarrari, baina, indarrak bukatu zitzazkion eta Paolo Largerrek aurreratu zuen azken kilometroan. Lighfoot bakar-bakarrik heldu zen Zegamako helmugara.



Ricky Lighfoot  
Irabazlea



Emanuela Brizio  
Lehen emakumea



Bitor San Jose  
Debagoineko bigarrena



Oihana Kortazar  
Debagoineko lehen emakumea

"Oso pozik nago. Lasterketa  
atzetik aurrera egin dut. Mejia  
harrapatu dudanean, banekien  
irabazteko aukera asko nituela".

"Asko gustatu zait ibilbidea, eta  
asko eskertu ditut zaleen ani-  
muak. Gainera, errekor berria  
ezarri dut, eta pozik nago!"

"Ibilbidea ondo zegoen, iaz baino  
hobeto. Bigarren urtea da parte  
hartzen dudala eta gustura nago  
egindako denborarekin".

### sailkapenak

#### SAILKAPEN NAGUSIA

1. Ricky Lighfoot	4:03:12
2. Paolo Larger	4:05:25
3. Ricardo Mejia	4:05:28
4. Fernando Etxegarai	4:06:10
5. Miguel Heras	4:07:34
6. Jabi Olabarria	4:10:12
7. Rob Hope	4:11:30
8. Fulvio Dapit	4:12:01
9. Miguel Ortega	4:15:53
10. Aritz Kortabarria	4:16:13
11. Josu Bengoetxea	4:19:23

#### LEHENENGOKO NESKAK


1. Emanuela Brizio	4:38:19
2. Rosa Madureira	4:56:11
3. Stephanie Jimenez	5:02:14
4. Alizia Olazabal	5:04:07
5. Oihana Azkorbebeitia	5:09:20

#### DEBAGOIENDARRAK

10. Aritz Kortabarria	4:16:13
85. Bitor San Jose	4:58:49
144. Oihana Kortazar	5:20:06
153. Ekaitz San Vicente	5:23:02
168. Joxean Larrea	5:27:09
236. Jose Luis Barrena	5:40:56
204. Josu Gascon	5:44:27

# ORAIN GORBEIA Merkatal Gunea (Vitoria - Gasteiz) HURBILAGO!

IMAGEN 21



IRTEERA 8  
Etxabarri Ibiña  
AP - 1 EIBAR-GORBEIA



## GORBEIA gehien aurrezten duzun tokia

errazago, bizkorago, erosoago, merkeago

**Carrefour**

**DECATHLON**

**Norauto**

i'm lovin' it

**BRICO  
DÉPÔT**  
PRECIOS BAJOS TODOS LOS DÍAS

**merkal  
calzados**

**King Jouet**

**YELMO  
CINES  
GORBEIA**

**MUEBLES  
MAX  
DESCUENTO**

**SPLAFF!**  
*go fun fast*

**CIMER**  
el outlet del electro

**SAMIRA**  
FASHION OUTLET

LUXUS SPORT CARS - ISKIA - ULANKA - ZAPARRASTRILLO - CORTEFIEL - WOMEN'S SECRET - DOUGLAS - CHARO DUARTE - SPRINGFIELD - PROMOD - EL BROCHE - AUTOS GP - UNITEC MOVISTAR  
ATENCIÓN AL CLIENTE CARREFOUR - VEGA - PRENSA - ESPACE COIFFURE - INMOBILIARIA GORBEIA - WANAKA - ORO VIVO - GODO'S - SLIDE - TRIP BISUTERIA - REC - LOS TELARES - PACO MARTINEZ  
PIMKIE - GAME SUN PLANET - SWATCH - NATURA - VODAFONE - BIJOU BRIGITTE - ORANGE - ADMINISTRACION LOTERIA - ONCE - BARCELO VIAJES - ASERPLATA - VITAL KUTXA - GRECIA - AMAZONAS  
LARAPA - CEYLAN CAFÉ Y TE - LAHORE - OSCARG - MODAS ATENEA - EOLO 23 - FARMACIA - TRIP - FOOTLOCKER - SEPHORA - M2 - CAFETERIA M2 - BUFFET CHINO GORBEIA - KURRUSKO - OKETA - KEBAB  
KIOSKO GOXOA - TÚNEL DEL AVIÓN - CARREFOUR - BRICODEPÔT - DECATHLON - McDONALD'S - YELMO CINEPLEX - NORAUTO - KING JOUET - MUEBLES MAX DESCUENTO - MERKAL CALZADOS - SPLAFF!

PREFERENTE > UDA-MONDRA

# Ospakizunak derbia irabazita borobildu zituen etxeeko taldeak

Preferente mailako txapeldunak 3-0 hartu zuen mendean Mondra, ezer jokatzen ez zen derbian

Epaileak jokaldi berean Etxebarria eta Loiti egotzi izanak erabat baldintzatu zuen norgehiagoka

UDA  
**3-0**  
MONDRA

JOKIN BEREZIARTUA > ARETXABAleta Taldearen historian letra larriz idazteko eguna bizi izan zuen atzo UDAk. Mondraren pasilloa, jubenilei eta alebinez omenaldia –beste bi pasillorekin–, Aretxabaletako abesbatzaren zuzeneko saioa eta txapeldunaren kopa jasotzea. Eta hori guztia gutxi balitz, derbia 3-0 irabazi zuten.

**EZ OHIKO DERBIA**  
Ez zen ohiko derbia izan, bi taldeek jokoan ezer ez zutela nabitu zen. Iza ere, Mondrak mala mantentzea lortu zuen aste bukaeran. Atzo galdu arren, Euskaldunak Aloña Mendiren aurka galdu egin zuen eta talde zuri moreak lasai jokatuko du Idiazabalen aurkako norgehiagoka.

Igor Gordobilek denboraldian zehar gutxi jokatu duten jokalariak zelairatu zituen hasieratik. Eta Preferenteko txapelduna zer-gatik den erakutsi zuen beste behin; ordezkoekin ere maila ona erakutsi zuten. Hori bai, Mondra ere txukun ibili zen, zelaian ondo jarrita eta baloiarekin jokaldiak ondo lotuz.

Galtzen hasi arren, partiduari buelta ematea lortu eta 1-2 nagusitu ziren Josu Zubieren mutilak



Pavon eta Imanol, baloia lortu guran.



Eriko eta Igartua kapitainak, kopa jasotzen.



Partidua hasi aurretik merezitako pasilloa egin zion Mondrak Preferenteko txapeldunari.

JOSEKO ARANTZABAL

**EPAILEAK BALDINTZATUTA**  
Hala ere, epailea izan zen derbia etxeeko alde jarri zuena. Joko garbia eta tentsio eza nagusi zen unean Etxebarria eta Loiti egotzi zituen jokaldi berean. Kexatzearen kaleratu zituen,

jokalarien harridura eta haserrearen aurrean. Etxeko taldeko jokalari bat baino gehiago ere harrituta geratu zen epailearen erabakiarekin.

Orduan amaitu zen partidua. Bi jokalari gehiagorekin, jokoa

hegaletara ondo zabalduz erraz gailendu zen UDA. Hala, lehiaren azken txanpan heldu ziren etxeeko golak: zelairatu berri ziren Espinosak birritan eta Oinatzek sartu zituzten. UDAREN festa borobilan izan zen atzo Ibarran.

PREFERENTE > EUSKALDUNA-ALOÑA MENDI

## Merezitako garaipena lortu zuen Aloñak Andoainen

gutxia egingo duela. Zapatuan behintzat egin beharrekoa egin zuten: preferentean mantentzeko borrokan dagoen Euskaldunari irabaztea, hain zuzen. Orain lide-rri etxeen irabazi eta gainontzekoek kale egitea itxaron behar.

**ONENA, HIRU PUNTUAK**  
Partidua nahasi hasi zen eta ate-zainaren eta defentsaren arteko gaizki ulertu batek Euskaldunaren lehen gola ekarri zuen.

Baina Josu Zubia entrenatzaileak azaldu zuenez, "behetik

jokatzen hasi garenean askoz hobeto ibili gara". Hala, Ioritzek eta Roberrek markagailuari buelta ematea lortu zuten. Amaieran sendo ibili ziren defentsan eta ez zuten larregi sufritu. Onena, zalantza barik, hiru puntuak.

emaitzak eta sailkapenak

### PREFERENTE MAILA

#### Sailkapena

	Puntuak	JP
1. Aretxabaleta	73	33
2. Hernani	61	33
3. Tolosa	59	33
4. Real Union	59	33
5. Aloña Mendi	59	33
6. Pasaia	58	33
7. Trintxerpe	55	33
8. Berio	51	33
9. Hondarribia	49	33
10. Idiazabal	44	33
11. Aurrera	38	33
12. Vasconia	36	33
13. Mondra	35	33
14. Euskalduna	32	33
15. Mundarro	32	33
16. Anaitasuna	29	33
17. Zumaiako	24	33
18. Amaikak Bat	17	33

#### Emaitzak

Aurrera-Hondarribia	3-1
Amaikak Bat-Real Union-	2-3
Zumaiako-EHU Vasconia-	0-2
Hernani-Pasaia	5-0
Trintxerpe-Berio	4-3
Euskalduna-Aloña Mendi	1-2
Aretxabaleta-Mondra	3-0
Idiazabal-Tolosa	2-2
Mundarro-Anaitasuna	1-1

#### Hurrengoak

Hondarribia-Amaikak Bat
Real Union-Zumaiako
EHU Vasconia-Hernani
Pasaia-Trintxerpe
Berio-Euskalduna
Aloña Mendi-Aretxabaleta
Mondra-Idiazabal
Tolosa-Mundarro
Anaitasuna-Aurrera

### BESTELAKOAK

#### LEHEN ERREGIONALA, FINALA

Bergara-Oiartzun	4-3
------------------	-----

#### BIGARREN ERREGIONALA, IGOERA

Amaroz-Bergara	3-2
----------------	-----

#### OHOREZKO GAZTE, KOPA ETA

JAITSIERA	
Aloña Mendi-Lagun Onak	1-1

#### LEHEN MAILAKO GAZTEAK, IGOERA

Mondra-Pasaia	8-0
---------------	-----

#### OHOREZKO MAILA KADETEAK, IGOERA

Real Union-Aretxabaleta Ariz.	1-0
Bergara-Urola	1-0

#### OHOREZKO KADETE, KOPA ETA

JAITSIERA	
Aloña Mendi-Arrasate-	4-0

#### KADETEEN 1. MAILA, IGOERA

Oiartzun-Aretxabaleta	3-1
-----------------------	-----

#### INFANTIL TXIKI, KOPA

Aretxabaleta-Bergara	3-2
----------------------	-----

#### INFANTIL TXIKI, TXAPELDUN. FASEA

Arrasate-Kostkas	2-2
------------------	-----

**KIROLAK**  
**Harmailatik**

#### Debagoineneko

kirola

GOITBn

Astelehenero  
22:15etan.

FUTBOLA &gt; LEHEN ERREGIONALEKO FINALA

# Denboraldia borobiltzeko finala irabazi zuen Bergarak Oiartzunen kontra: 4-3

Bergararrek 4-3 irabazi zuen, bukatzeko sei minutu falta zirela 2-3 galtzen egon ondoren

Preferente mailako igoera eta kopa txapelketa ospatzeko afaria egin zuten

BERGARA

**4-3**

OIARTZUN

**Bergara** > Soto, Agirrezaibar (Eloy), Nafarate, Oregi, Urteaga (Lazpiur), Agirre, Loiola, Atzola (Iñurrieta), Otero, Martinez (Baltzategi), eta Imanol (Ibañez).

**Oiartzun** > Olaziregi, Azpietia, Arbelaitz, Pika-bea, Axier (Txabarri), Lekuona, Fernandez, Leonet (Izagirre), Inziarte (Oiarbide), Bereziartu (Elizasu) eta Marcos (Garmendia).

**Kontuan hartzekoak** > Lehen erregional mailako bitaldean arteko finala Zubietan jokatu zuten zapatuan.



Bergarako jokalari eta arduradunak kopa jaso ondoren.

MANU DIAZ

**MIREIA BIKUÑA** > BERGARA  
Bukaera ezin hobea eman zion zapatuan Bergarako futbol taldeak denboraldiari: erregional mailako bi talde onenen arteko fina-

la irabazi zuten. Gainera, emaitzari buelta emateko gai izan ziren: finala bukatzeko sei minutu falta zirenean 2-3 atzetik zeuden mahoneroak. 85. minutuan

berdindu zuen Jon Altzola bergararrak; eta 87. minutuan egin zuen garaipenaren gola Martin Ibañezek. Pozarren ospatu zuten bergararrek bi golak.

**GAKOA, ALDAKETAK**

Hurrengo denboraldian preferente mailan elkar ikusiko duten bi taldean arteko lehia oso parekatua izan zen. Bi taldeek hasie-

rako hamaikako indartsuak zelaratu zituzten. Bergararrak aurreratu ziren markagailuan lehen zatian Gorka Martinezek boleaz sartutako golari esker.

Bigarren zatian, Oiartzunen bi gol egin zituen hiru minututan, eta aurretik jarri ziren 2-1. Bergarako jokalari Martin Ibañezek egin zuen berdin ketaren gola. 84. minutuan aurreratu zen berriro ere Oiartzun. Baina Bergarak indarrak zituen oraindik ere, eta ozta-ozta, buelta eman zion markagailuari.

Zapatuko partiduko gakoa aldaketetan egon zela esan zigun Bergarako entrenatzaile Manu Diazek. "Bero sargoria egin du, eta aldaketak egin ditugu azkar, baina Oiartzunen ordezko jokalariak ez dute gure ordezko maila bera. Hortaz, guk aldaketekin arnasa hartu dugu eta gora joan gara, baina eurek indarra galdu dute apurka-apurka".

**GORLAKO IGOERA**

Txapeldunaren kopa jaso ondoren, jokalariak eta arduradunek afaria egin zuten Bergaran denboraldian egindako lorpenak ospatzeko.

Denboraldia agurtzeko azken ekitaldia ekainaren 6an egingo dute. Urtero moduan, Gorlara igoko dira bizikletaz eta kantinan hamarretakoa egingo dute. Gainera, denboraldiko jokalari one-nak sarituko dituzte.

## Jolas eta joko tradizionalen topaketa egin zuten Arrasaten

Goieskolak antolatuta VIII. Joko eta Jolas Tradizionalen topaketa egin zuten egubakoitzean Arrasaten. Debagoineneko eskola publikoetako laugarren mailako 200dik gora ikasle elkartu ziren Iturripe kiroldegin bertan eta kanpoko jolaslekuetan. Taldeka banatuta askotariko jolas eta jokoak egin zituzten; besteak beste, txirloak bota zituzten; gomarekin jokatu zuten; sokatiran ibili ziren eta zaku lasterketak egin zituzten. Antolatzaileen esanetan topaketen helburua da herri ezberdinetako eskola publikoetako ikasleen hartu-emanak sendotzea. Oso gustura bukatu zuten egubakoitzean, bai neska-mutikoek eta baita irakasleek ere.



GOIENKARIA


**ARETO FUTBOLA**

## UDA-Orlyk igotzeko finala jokatuko du

**M.B.** > ARETXABAleta  
Aretxabaletako areto futbol taldeak bigarren mailara igotzeko finala jokatzeko txartela eskuratu du. Egubakoitzean Almenen jokatutako finalerdian Villabonako Urritza taldea mendean hartu zuen (1-0). Tentsio handiko partidua jokatu zuten bi taldeek. Biek ala biek izan zituzten aukerak, baina gol bakarra UDAk egin zuen azken minutuan, Imanol Carmonaren bitartez.

**FINALA, OÑATIN**

Gipuzkoako areto futbol txapelketako final guztiak Oñatin jokatuko dituzte zapatuan. Aretxabaletak 16:30ean jokatuko du bigarren mailara igotzeko finala.



Eneko Mugurutza pilota astintzen, bikote kide Ander Mugurutza eta Azkoitiko pilotariak begira dituela.

J. ARANTZABAL



Zaleek erabaki batzuk protestatu zituzten.

JOSETXO ARANTZABAL

PILOTA > FINAL LAURDENETAKO ITZULERAKO PARTIDUAK

## Bergara Herri Arteko Pilota Txapelketako finalerdieta

Azkoitiaren kontrako kanporaketari buelta eman zioten etxeekoek hiru partiduak irabazita

Finalerdieta joaneko partiduak barikuan jokatuko dituzte Bergaran, Donostiaren kontra

MIREIA BIKUÑA > BERGARA  
Herri Arteko Pilota Txapelketan tradizio handia duen taldea kanpoan utzita lortu dute bergararrek finalerdieta txartela. Egubakoitzean jokatutako hiru partiduak irabazi zituzten etxeekoek (22-7, 22-9 eta 19-22), eta Azkoitiak zuen

abantaila, hutsean utzi zuten. Reyes Azkoitiaren mutilek lan borobila egin zuten, eta Donostiarren kontra jokatuko dute finalerdieta. Joaneko partiduak barikuan jokatuko dituzte Bergaran, 20:00etan, eta itzulerakoak astebele beranduago Donostian.

### KADETEAK

Bergarak 2-1 galdu zuen Azkoitian, eta kanporaketari buelta emateko gogoz irten ziren kantxara pilotariak. Lehen-lehenik Mikel Gallastegi eta Beñat Resusta. Lehen tantoa azkoitiarrak izan zen, baina pilota behin eta berriz azteko koadroetara bidaliz, Azkoitiko atzelaria huts asko egin zituen. Bergararrak 1-5 aurreratu ziren. Hasierako tanto luzeen ondoren, eta Azkoitiko atzelaria oso fin ez zebilela ikusita, sendo jokatu zuten atzean, eta 12 tanto egin zituzten jarraian, 2-17 aurreratuz. Azkoitiak

atseden hartu zuten erritmo apurtzeko asmoz, baina ez zituzten gauzak aldatu. Azkoitiko aurrelariak dejada batzuk egin zituen, baina etxeekoek sendo mantendu zuten abantaila.

Kadete mailako puntuarekin kanporaketa berdindu zuten etxeekoek, eta bederatzi puntuoko abantaila hartu zuten.

### GAZTEAK ETA SENIORRAK

Resustak eta Irizarrek partidu ona jokatu zuten gazte mailan. Kadete mailan bezala lehen tantoa azkoitiarrak izan zen. Bina berdindu ondoren, sei tan-

toko aldea zabaldu zuten etxeekoek: 8-2. Aldika azkoitiarrek tantoren bat egiten zuten arren, joko indartsua eta sendoa egin zuten Resustak eta Irizarrek kantxa osan zehar, eta 16-9 aurreratu ziren. Partidua erabakita zegoela ikusita, baina ahalik eta abantaila handiena lortzea importantea zenez, azken sei tantoak etxeekoek egin zituzten: 22-16.

Kontuak egin ondoren, senior mailako partidua hasterako bazeitzen etxeekoek tanto bakarra eginda finalerdieta txartela lortuko zutela; baina Ander eta Eneko Mugurutzak partidua irabazi egin zuten: 22-19. Barikuko lehiarik gogorrena izan zen. Lehen tantoak oso parekatuak izan ziren. Zazpina berdindu ondoren, 10-7 aurreratu ziren etxeekoak. Azkoitiak berdindu egin zuen, eta 11-16 eta 19-17 aurreratu zen; baina, azken bost tantoak bergararrek egin zituzten.

## Bergarako kopa txapelketako finala irabazi zion Ford Mugarriri

Bergarako senior mailako eskubaloi taldeak lauko finala irabazi zuen atzo Ordizian. Hain zuen ere, finala Ford Mugarrirri arrasatearen kontra jokatu zuten, eta 28-23 irabazi zuten.

Zapatuko finalerdiak irabazi ondoren, ibarreko bi taldeak finalean lehiatu ziren atzo. Tentsio handiko partidua izan zen. Bi taldeek defentsan oinarritu zuten lehia, eta gol gutxi egin zituzten erasoan. Epaileak ere protagonista izan ziren, 18 jokalari egotzi zituzten bi minutuz: Arrasateko 13 jokalari eta Bergarako 5.



JOSETXO MUNIATEGI

> MENDIA  
**Naturgas Makalu'09 espedizioa bertan behera utzi dute**

Makaluko mendebaldeko harroinean egiten zuen hai-ze indartsuak bertan behera utzi du Alberto Iñurrategik, Juan Vallejok eta Mikel Zubaltzak martxoaren 30ean hasitako espedizioa. Hurrengo egunetarako eguraldi iragarpenak ez ziren onak eta gailurrera heltzeko (8.463 metro) saiakeria berria ez egitea erabaki zuten egubakoitzean. "Maiatza bukatzen dabil eta ez dugu denbora nahikorik. Bertan behera utzik dugu espedizio hau, baina bide honek pena merezzi du, eta itzuliko gara", dio Alberto Iñurrategik. Euren helburua zen soka eta kanpamendu finko barik eta oxigeno barik igotzea gailurrera.

Xabi Igartua > Aloña Mendiko saskibaloi entrenatzailea

# "Erabakiak hartu eta aukera onenak hartzen ikasi dugu"

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

Aloña Mendiko saskibaloia saileko mutilek liga autonomikora igotzea lortu berri dute. Xabi Igartua entrenatzailearekin izan gara; dio igorren zati bat Gorka Zurutuzari zordiola, haren bitarte ezagutu dituelako taldeko hainbat jokalari.

**Zorionak, igoeragatik! Zure ustez, non egon da igoeraren gakoa?**

Nik uste dut maila handiko jokalariak izan ditugula taldean; bai jokatzeko orduan eta baita entrenamenduetan erakutsi duten seriotsasunean ere. Saskibaloia jokalari onak izateaz gain, saskibaloian lan egiteko seriotsasuna ekarri dute. Erreferente izan dira beste jokalarien aurrean. Bestalde, denboraldi hasieran Aloña Mendik egin zuen apustua garbia izan zen: bi ligatan jokatuko duen taldea egitea.

**Zer esan gura du horrek?**

12 jokalariz osatutako taldea egin beharrean, 16 jokalariz osatutako taldea egin dugu, baina bi ligatan jokatu dugu: probintzialeko 1. eta 2. mailetan. Jokalari guztiek izan dute jokatzeko aukera; goiko ligan ez bada izan, behekoan. Bestalde, 16ko talde horren ondorioa izan da entrenamendu guztietan, gutxienez, 12 lagun egon garela. Hala, entrenamenduetako erritmoa handiagoa izan da.

Horregatik esaten dut txapelketa ez dutela irabazi aulkian egon diren 12 jokalariek, baizik eta astero entrenamenduetara eterri diren jokalariek. Bi ligatan jokatu duen taldea gara.

**Hala, jokalari guztiek izan dute aukera jokatzeko.**

Bai, batzuek goiko taldean jokatu ez duten arren, beheko taldeanibili dira; eta, modu horretan, entrenamenduetan ikasitako praktikan jartzeko aukera izan dute. Uste dut pertsonaren heziketarako ona dela hori.

**Denboraldi hasieratik ikusi duzue igotzeko aukera?**

Denboraldiari egokitutegi egin beharra izan dugu. Iazko jokalarien maila bat gorago jokatzen egokitu behar izan dute. Horrek eskatzen du erritmo handiagoarekin jokatzea.

Bestalde, Arrasatetik eterri-tako jokalariek –Biain, Gamarra eta Mallabiarren– ere egokitu behar izan dute. Liga honetan ez da jokatzen 24 segundoko erasora.

Hasieran hainbat partidu galdu genituen, baina balio izan digute ikasteko eta ligari neurria hartzeko. Azkeneko momentura iritsi gara erritmoa zelakoa den



ARANTZAZU EZKIBEL

jakinda eta momentu bakoitzean zer egin behar den jakinda. Uste dut Ordizian jokatutako lauko finala horregatik irabazi dugula. Ezberdina da jokatu jokatzearen

edo jokatu irabazterea. Irabazterea jokatzen denean erabakiak hartu behar dira, eta uste dut hori ikasi egin dugula: beti aukera onenak aurkitzen.

## ERREFERENTEAK

**"Jokalari onak izateaz gain, erreferente izan diren jokalariak ekarri ditugu"**

## DEBAGOIENA

**"Arrasatek lan handia egin du eta Gipuzkoako saskibaloian erreferente bilakatu da"**

## ESKARMENTUA

**"Arrasateko Ointxen egin ditudan bi urteak baliagarriak izan zaizkit Aloña Mendi"**

zen apustua izan zen jokalari berri hauek erreferentzia izatea gazteentzat. Hau da, helburua ez zen senior mailako taldeak igorera lortzea; helburua, hain justu, neska-mutiko gazteentzat erreferente izango diren jokalariak ekartzea izan zen.

**Esan behar da zu zeu ere Arrasateko Ointxe taldean ibili izan zarela. Hortaz, goiko mailetan baduzu eskarmentua.**

Azkeneko bi urteak eman ditut entrenatzaile laguntzaile Arrasaten. Beste erritmo batean entrenatzen da; eta lehiaketa ere beste erritmo bateko da. Arrasaten bizi izan ditudan momento on eta txarrak –adibidez, EBAra igotzeko finala galtzea– baliagarriak izan zaizkit.

Iaz Aloña Mendik gazte mailako entrenatzailea izan nintzen; aldaketa izan da formazio mailako entrenatzaile izatetik lehiatzeko talde bateko entrenatzaile izatera pasatzea.

**Datorren denboraldiari begira, maila aldaketa handia izango da jokalariendako?**

Uste dut ez dugula igarriko maila aldaketa. Datorren urtean, egokitze lana baino gehiago hobetzte lana egin behar dugula uste dut. Ez da horrelako aldaketarik egongo taldeen artean.

Aurten izan dugun taldea mantentzen badugu, uste dut maila horretan jokatzeko moduko taldea izango dugula.

**Debagoienean, oro har, nola ikusten duzu saskibaloia egoera?**

Nik uste dut lehen Donostia aldean kontzentratzen zela saskibaloia guztia eta, poliki-poliki, Gipuzkoako beste herri batzuetara zabaldu dela. Arrasatek, adibidez, lan handia egin du eta Gipuzkoako erreferente izatera pasa da. Arrasate inguruko herriekin baliagarria izan da Donostiako taldeei aurre egiteko.

**Esan izan da ona litzatekeela Debagoienean talde bakarra ateratzea. Zer diozu?**

Nik uste dut elkarteko bakarra egitea akatsa izango litzatekeela. Herri bakoitzak bere tokian egin behar du. Gainera, gure ibarrrak ez du ematen aukerarik neska-mutiko gazteak herri batetik bestera mugitzen ibiltzeko. Beste gauza bat da Arrasatek talde sendoa izatea eta talde horretara Debagoieneko beste herriekin jokalari onak joatea.

**Saskibaloia egoera, horiaz, ona da!**

Bai, hobera doala esan behar da. Emaitzak ere hor daude.

ARRASATE

# Parte-hartze eta giro bikaina urteroko saskibaloitik maratoian

**EGUN OSOAN** Goizeko hamarretan hasi eta arratsaldeko zortziak bitartean saskibaloia ez zuen etenik izan

**550 IKASLE** Aurten ere arrakasta handia izan du 3x3 Saskibaloitik txapelketak, 550 gaztetxo inguruk hartu dute parte

**115 TALDE** Guztira 115 talde lehiatu ziren zapatuan Laubide plazan egokitu zitzuten 12 saskibaloitik maratoian

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Aurten ere ezin arrakastatsuagoa izan da 3x3 Saskibaloitik txapelketak. Iaz, arratsaldean bota zuen euri-teak txapelketa bertan behera uztera behartu zuen. Aurten, baina, dena ondo joan da.

Leintz eskola kirolak Ointxe! Arrasateko saskibaloitik taldearen laguntzaz antolatzen duen ekitaldia da -kamisetak egiteaz Kobate harrobia arduratu da-, eta zalan-tza barik, urteko ekitaldi garra-nitztsuenetarikoa da eurentzat.

Zapatuan gertutakoari dago-kionez, saskibaloia ez zuen etenik izan goizeko hamarretatik arratsaldeko zortziak bitartean. Laubide plaza ia egun osoan zehar egon zen jendez lepo; protagonis-tek, lagunen, guraso eta saski-baloiaoz gozatzera hurbildu zirenen babesa izan zuten.

**SEKULAKO PARTE HARTZEA**

3x3 Saskibaloitik txapelketaren datuak adierazgarriak dira: benjamin, alebin eta infantil mailetan banatuta-maila bakoitzean muti-lak, neskak eta talde mistoak daude- 550 ikasle inguruk hartu zuen parte txapelketan. Guztira 115 talde lehiatu ziren Laubide plazan egokitu zitzuten 12 kantxetan. Kantxa bakoitzean saski bakarra jartzen dute. Partidu bakoitzak 20 minuto iraun zuen, zehazki. Izan ere, atzerapenik ez izateko 12 kantxetan une berean hasi eta amaitzen ziren partiduak.

Irabazleek domina bana, pos-terra eta Gasteizen egingo den 3x3 txapelketan jokatzeko txartela eskuratu zuten. Bada zerbait.



**Metralletak eta Mondra Girls.** Uxue, Nora, Miren, Paula, Lia, Oihana, Uxue, Ainhoa, Mime, Tamara eta Naiara.



**Drako kometak** Aritzek, Xabierrek, Ioritzek, Younesek eta Jonathanek talde berezia sortu zuten 3x3 Saskibaloitik txapelketarako.



**Porruak.** Jon Anderrek, Anderrek, Aitorrek, Julenek, Iñigok eta Aitorrek taldea osatu zuten txapelketarako.




**Karapaixo.** Boskote bikaina osatu zuten Maitanek, Loreak, Nagorek, Sarak eta Uxuek; argazkian, euren jarraitzaile batekin.

ZER DA SASKIBALOITIK GEHIEN GUSTATZEN ZAIZUNA?



Gorka, Jaime eta Alain  
Kake Mate



Ander, Aitor eta Aitor  
Porruak



Oihane eta Leire  
Totenmerkers



Alex, Joseba eta Martin  
Eusko Tsunamiak



Uxue, Maider eta Ione  
E taldea

Saskibaloia oso gustuko dutela agerian utzi zuten zapatuan Gorka, Jaime eta Alaineak. Saskira heltzeko txikiagiek diren arren, mateak egitea gustatzen zaiela esan ziguten. Hirukoak sartzen ere espezialistak ei dira.

3x3 Saskibaloitik txapelketa oso gustuko duten ekitaldia dela aitortu ziguten Aitorrek, Anderrek eta Aitorrek. Saskibaloian jokatzen asko gozatzen dute, baina beste kirolei ere ez diete muzin egiten; futbola, kasu.

Ederto ibili ziren Oihane eta Leire zapatuan, saskibaloia "asko" gustatzen zaie-eta. Beste taldekeen artean paseak egiten ezin hobeto pasatzen dute, eta hala ibili ziren txapelketan zehar. Futbolean ere jokatzen dute.

Mateak egitea eta hirukoak sartzea da Alexi, Josebarri eta Martini saskibaloitik gehien gustatzen zaiena. Izerdi patxetan amaitu zuten, gustura ibili ziren seinale. Futbola eta saskibaloia dira euren kirol gustukoak.

Saskibaloia orokorrean gustatzen zaien Uxueri, Maiderri eta Ioneri. Hau da, ez zuten kirolaren atal zehatzik nabarmendu gura izan. Ederto pasa zuten batak besteari baloia pasatuz, ahalik eta saskiratze gehien lortzeko helburuarekin.



**Arantza Hernandez**  
> Irakaslea

**Z**er prestatuko dut afaltzeko? Galdera bera gauero, etxera bueltan nekatuta itzultzen garenean; horrelakoetan oraindik ere beste zeregin asko izaten ditugu: etxekek lanak, umeak bainatu, arropa jaso... eta afaria prestatzeko, gogorik ez.

Afari nahasiak, gaur egun, ohitura bihurtu dira, eta ondorioz hainbat huts egiten ditugu:

Gehiegizko afariak: jatorduen banaketa desegokia eta askaria alde batera uztearen eraginez, izugarritzko gosegarekin heltzen gara eta aurrean daukagun guztia jaten dugu.

Afari oso arinak: entsalada edota esne ontzi bat, eta batzuetan ezer ere ez.

Kalitate gutxiko afariak: presstatutako janariak, hestebeteak, gaztak, ogitartekoak...

#### ELIKADURA OREKATUA

Elikadura orekatura izan dadin, hona aholku batzuk:

Osasuntsu jateak janaldi guztiek egitea esan nahi du: gosaria, bazkaria, askaria eta afaria. Lota joan baino ordubete lehenago afaldu, hobeto egiteko lo.



Etxetik kanpo baziak arren, egoki eta modu orekatuan jatea ezinbestekoa da osasuntsu bizitzeko.

#### OSASUNA > ELIKAGAIAK

## Afaria, jatordu osasuntsua

Afariak arina izan beharko du; horrek ez du esan nahi fruta edo esneki bat bakarrik jatea. Asko jaten denean, gauez gorputzak egiten duen prozesua moteldu egiten da eta loa eragozten du. Komenigarria da gutxienez bi

platet jatea. Afariak eguneko behar energetikoen %20-30 izan behar du. Komeni da afariak oinarritzko elikagaiez osatuta egotea. Afaria planifikatu behar dugu egunean zehar egin ditugun besete janaldien arabera.

Elikagai batzuek atsedena hartzen laguntzen dute: ogia, esnea, zerealak eta platanoa. Beste batzuek, atsedena eragozten dute: tea, txokolatea, hestebeteak eta frijituak. Kreatibilitatea eraibili eta modu desberdinako eli-

kagaiak prestatu. Dastamena landu egiten da; elikagai bat behin eta berriz janez, atsegin izatera heltzen da. Ordutegia finkatu eta familia giroan afaldu, askotan afariak familiartean egoteko une bakarrak izaten baitira.

#### AFARI OSASUNTSUA EGITEKO PROPOSAMENAK:

Jaki berarekin hainbat aukera osasuntsu eskainiko ditugu afaritarako; kontuan izan, horretarako zure familiako ohituretarra egokitzen diren aukerak hautatu behar direla.

Hasteko, beti izan kontuan:

> Afariak egunean jan duzuna osatuko du; horregatik, garrantzitsua da eskolako eta lantokietako menuak ezagutzea. Horrela, menuak planifikatu ahal izango dituzu eta baita erosketak ere.

> Elikaduraren gurpila eta piramidea errespetatu behar da; egunez jan ez duguna afarian sartu behar dugu.

Gertat daiteke familiako kide bakoitzak menu ezberdinak jatea, eta ondorioz, elikagai ezberdinak prestatu behar izatea.

Egoera hori saihesteko, zuzenena barazki eta fruta jartzea da, gehien jan beharreko jakiak izan arren gutxien kontsumitzen direnak baitira.

Afari osagarri horietatik zeure ohituretarra hobekien egokitzen dena hauta dezakezu:

1. Janaria:  
Barazkia/entsalada/haragia/fruta edo jogurta

a. Pasta, arroz edo entsalada/fruta

- edo jogurta.
- b. Pasta edo arroza/arraina edo arrautza/fruta edo esneka.
- c. Arraina edo arrautza/fruta edo esneka zerealekin.
- d. Entsalada edo barazkia/ arraina edo arrautza/fruta edo esneka.
- e. Ilarrak, garbantzuak edo diliastak (kantitate txikia)/ fruta edo esneka.

#### 2. Janaria: Lekadunak/haragia/jogurta edo fruta

- a. Entsalada edo barazkia/arraina edo arrautza/fruta edo esneka.
- b. Entsalada edo barazkia/ fruta edo esneka.
- c. Entsalada edo barazkia/ patata, arroza edo pasta/fruta edo esneka.

#### 3. Janaria: Arroza, pasta edo patata/ haragia/fruta edo jogurta

- a. Entsalada edo barazkia/arraina edo arrautza/fruta edo esneka.
- b. Entsalada edo barazkia/fruta edo esneka zerealekin.
- c. Entsalada edo barazkia/ila-rak, garbantzuak edo diliastak (kantitate txikia)/fruta edo esneka.
- d. Entsalada edo barazkia/pasta, arroza edo patata/fruta edo esneka.

Ohiko lehenengo eta bigarren platerrek ez dute derrigorrez hala izan behar! Ezta haragia bazkaldu bada, arraina afaldu behar. Aukera ugari dago. Imajinazioa erabil! Gogoratu kantitateak txikiak behar dutela izan.

#### Aholku interesgarriak

> Oso garrantzitsua da eguna gosari egokiarekin hastea: esnekiren bat, zerealak eta frutaren bat, adibidez.

> Bigarren platera ez da ezinbestez haragia, arraina edo arrautza izan behar. Entsalada, arroza edo pastarekin osa daiteke.

> Haragia, arraina eta arrautza, piper, entsalada edo perretxikoekin jan daiteke. Beti ez dira patata frijituak izan behar.

> Egunean behin barazki edo entsalada gordina jatea komeni da; ez dira bitaminak galtzen, egosikako barazkietan ez bezala.

> Gozokiak jateak hortzetako txantxarra eta loditasuna eragiten du. Fruta da mokadu gozoetan onena.


> Garrantzitsua da lasaitasuna dagoen leku batean jatea, janaria ondo murtxikatuz. Jatordu bakoitzak ordu erdi gutxinez iraun beharko du.

> Jaten dugun bitartean ez ikusi telebista.

> Ahal den neurrian familia giroan egin jatorduak, gertatutakoak kontatzeko momentu egokiak dira.

#### ELIKADURA PIRAMIDEA

Elikadura piramideak elikagai bakoitzetik jan beharreko kopurua adierazten digu. Piramidearen oinarrian maiztasun handiagoarekin jan beharreko elikagaiak daude. Piramidean noizbehinka jan behar ditugun elikagaiak egiten da. Puntan gainerako elikagaiak ditugu.



ZEREALAK	URA	FRUTAK	ESNEKIAK	BARAZKIAK	OLIOA
Eguneko 3-5 aldiz	Eguneko 4-8 edalontzi	2-3 anoa egunean	2-3 anoa egunean	2 anoa egunean	4-5 koilarakada egunean

FRUITU LEHORRAK	LEKALEAK	ARRAUTZA	ARRAINA	HARAGIA
3-4 anoa astean	3-4 aldiz astean	3-5 aldiz astean	3-4 anoa astean	2-3 aldiz astean



## > NASTE BORRASTE

Bilboko ska-punk taldeak kontzertua egin zuen barikuan Arrasateko 3.60 aretoan > **32**



## > AMA SAY

Deabruak Teilituetan taldearekin batera, emanaldi bikaina egin zuten Espaloian > **32**



## > PILI KALTZADA

Kazetari, zientzia dibulgatzaile eta komunikatzailea, elkarritzeta > **40**



Macacok Huhezi fakultateko aparkalekua topetaraino bete zuen eta erakutsi zuen Mundumira bezalako festa baterako aukera ezin aproposagoa dela; kulturen festa egin zuen taula gainean.

JOSETXO ARANTZABAL

# Mundumirak bere bosgarren arrakasta lortu du Eskoriatzan

Zalantza barik sutraiak errotuz doan festa da Mundumira; aurten ere dibertigarria, solidarioa eta koloretsua izan da

### ARRITXU BARRUSO > ESKORIATZA

Mundumira jaialdiak, bosgarren aldiz, aurreikuspenak gainditu eta sekulako arrakasta izan du. Oraingo urtean Eskoriatzari tokatu zaio munduko kulturen festa etxearen hartzea. Eredua eta jaiaren

planteamentua edo egitaraua ez dira asko aldatu bost urte hauean, baina argi dago asmatu dute-la ereduarekin; gero eta ezagunagoa bilakatzen ari da *Euskal Herria* aldzikariak eta Debagoieneko Mankomunitateak antolatutako

kulturen festa handi hori eta urteik urterako sustraiak errotuz doaz. Egia dena da ez daudela horrelako egitarau zabala eskaintzen duten jaialdi asko: aberasgarria, solidarioa, dibertigarria, irekia eta koloretsua.

### MUNDUKO KULTUREN TOPAGUNE

Mundu osoko herrialdeetako doi-nuak, zaporeak eta artisautza ikusi ditugu aste bukaean Eskoriatzan. Egubakoitzean Senegalko

(30. orrialdean jarraitzen du)

## Mundumirak aurten ere sekulako arrakasta izan du

(29. orrialdetik dator)

MLOMP perkusio eta dantza taldeak ireki zuen egitarau multikulturala, eta dagoeneko Eskoriatza-hurbildutakoei gogorarazi zien Mundumira festa mundiala dela.

Egubakoitz iluntzean, berriz, bertako musikaren txanda etorri zen; Zura taldea funk, soul eta jazz erritmo berritzaleekin eta Korrontzi taldea folk erritmo tradizionalagoekin. Gauean, berriz, Balkanetako eta Greziako musika arabiarraren nahasketa izan zen entzungai. Alemaniako 17 Hippies taldeak kontzertu bikaina eta dibertigarria eskaini zuen. Sorpresa izan zen askorendako: musika oso bizia eta dantzagarria. Ikusleekin, gainera, zuzeneko harre-

mana eta konplizitatea lortu zuten alemaniarrek. Eskoriatzako plaza jendez betetzea lortu zuten 17 Hippies taldekoek.

Zapatuko egitaraua, berriz, Amama Luisa Brass Band taldeak ireki zuen, 20ko hamarkadako New Orleansko soinu beltzaren magiarekin. Romina Goshtasbi dantzariak, ondoren, Iranera eroan zituen Eskoriatzako plazan batutakoak bere dantza pertsiarrekin. Brasilgo dantza eta doinuak ere izan zuten tokia Senzala Euskadi Capoeira taldearekin eta Brasilgo Madera de Choro taldearekin.

Mundumiran gauza bitxiak ikusi ohi dira urtero-urtero eta aurten benetan bitxiak izan ziren zapatu eguerdian Eskoriatzan topatutako autoak. Artea Teatro taldeak *'Los Autos Locos'* kale ikuskizuna eskaini zuen eta Santa Mariñe plazan dantzan eta mugi-



MLOMP talde senegaldarrak Mundumiraren egitarau multikulturala ireki zuen bariku arratsaldean.

J.ARANTZABAL



Artea Teatro taldeak 'Autos Locos' kale ikuskizuna eskaini zuen zapatu eguerdian.

menduan ipini zituzten bertara gerturatutakoak. Zapatu eguderako Eskoriatzako plaza eta inguruak jendez lepo zeuden eta arratsaldean autobusak jendez beteta iristen ziren bata bestearren atzetik. Iluntze aldera parrandarako gogoarekin iritsi ziren asko, eta giroan sartzeko modu ezin hobea aurkitu zuten, Eskoriatzako plazan, Venezuelako Bloque 53 taldearekin. Plazan jendetza batu zen eta asko izan ziren sanba latindar doinuak dantzatzera animatu zirenak. Beranduago, Rude Kanka eta Macacorekin etorriko zenerako prestatzeko bidea eman zuen Venezuelako seikoteak. Dantzan hasita jende askori ahaztu egin zitzzion afaltzeko ordua gainean zela, eta urteroko kontu bilakatu dena gertatu zen; kebab bat, kus-kusa edota falafelak jateko sekulako ilarak sortu ziren.

Dena den, Mundumira guztia ez zen festa, musika eta kale ikuskizuna. Artisautza azokak eta mendi eta bidaia azokak ere sekulako arrakasta izan zuten. Batek baino gehiagok udako oporretarako makina bat aukera ikusiko zituzten.

Tamalez, baina, Mundumira uste baino lehenago bukatu zen. Domeka eguderira arte iraun zuela esan daiteke. Euri zaparraidek domeka arratsaldeko ekintzak bertan beharra utzi beharra ekarri zuen. Antolatzaleak, baina, oso pozik daude bosgarren edizio honen bilakaerarekin. Debagoineko Mankomunitateko Turismo teknikari Ana Erizek esan digu jende "pila bat" ibili dela. Erizek eskerrak eman nahi izan dizkie garraio publikoa erabili zutenei eta barkamenak eskatu ditu atzepenak egon baziren.

**MUSIKA > RUDE KANKA & IBAN NIKOLAI ETA MACACO**

# Munduko musiken mestizajea, agertokian

**NON:** Huheziko aparkaleku.  
**EGUNA:** Zapatua, maiatzak 23.  
**ZENBAT JENDE:** Aparkaleku betea.  
**IRAUPENA:** Bi ordu.

**A.B. > ESKORIATZA**  
Munduko kulturen festak jende asko eroan zuen Eskoriatzara, baina Mundumirar gerturatu-tako askoren helburu nagusia zen azken astoan irratia komertzialaren lehen postuetan dagoen talde kataluniarraren kontzertua ikustea eta *Moving* abesti ezaguna dantzatzea. Macacok Huhezi fakultateko aparkalekuak betetzea lortu zuen.

Ohikoa duen moduan, taula gainean munduko kulturen bere festa propioa egin zuen Macacok; kulturak eta doinuak nahastea da berea: flamenco, funkia, rumba, pop-a, doinu brasildarrak, Afrikakoak...

*Puerto Presente* da taldearen azken lana eta martxoan argitaratutako disco berriko abestiekin hasi zuten kontzertua (*Tengo, Puerto Presente eta Mundo Roto*, besteak beste). 45 minuto inguru pasata, zaleek horrenbeste itxarondako momentua iritsi zen, *Moving* abesti famatua. Kantua aurkezterakoan, Dani Carbonellek argi utzi zuen Falange Espaola alderdi politikoaren kontrako salaketa ipini dutela euren abestia hauteskunde karpinarako erabiliz izanagatik. Azalpen horiek emanda zaleen goseña asetu zuten.

Inprobisaziorako duten abi-lezia ere erakutsi zuten, eta taldeko kide guztiak, banan-banan, oinarriz batzuen gainean letrak inprobisatu zituzten. Orduan iku-si zen mestizajea eta estilo nahasketak taldeko partaideengandik eurengandik hasten dela. Estilo flameko, raperoa edo afrikarra

ikusi ziren, besteak beste, improbazio horietan.

*Ingravito* diskoko abestiak ere eskaini zituzten, esaterako, *Brasil 3000eta Con la mano levanta*. Azken honekin, beharbada, *Moving* berarekin baino arrakasta gehiago lortu zuten. Zaleak pozik utzi zituen Dani Carbonellek. Baina, beti izaten da kritikatu beharreko zerbaite eta kasu honetan soinua izan zen, bolumena oso baxua zen eta momentu batzuetan abeslaria bera entzute ere zaila zen.

### RUDE KANKA & IBAN NIKOLAI

Jende gutxirekin hasi zuten kontzertua Rude Kanka taldekoek, baina, jendea iritsi bezain laster sartu zen kontzertuan. Sesio berezia eta benetan interesgarria egin zuten, txalaparta, saxoa, didge-riodo eta musika elektronikoa nahasiz. Zalantza barik, nahasteen gaua, zapatuko.



Macaco zapatuko kontzertuan.

J.A.



Macacok jende asko erakarri zuen Eskoriatzara. Batez ere neskak ikus zitezkeen kontzertuaren lehen ilaretan.



17 Hippies talde alemaniarrak ikuskizun berezia eskaini zuen barikuau.

J.A.



MLOMP Senegalko perkusio eta dantza taldea.



Lasai egoteko aukera ere izan zen momentu batzuetan.



Candombe kultura elkartearren (Uruguay) kale ikuskizuna.



Romina Goshtasbi iraniarra.

J.A.

#### BISITARIEN IRITZIA



Pedro Sanchez  
Badajoz



Ana Merino  
Tolosa



Hiroe Kivchi  
Irun



Veronica Grefa  
Aretxabaleta



Asier Altuna  
Bergara

**"Sekulako giroa dago, asko gustatzen zait; festa benetan polita"**

"Goma-aparrezko panpinak saltzen ditut. Aho zabalik geratu naiz Eskoriatzan aurkitu dudan giroarekin. Ni neu Mundumirara natorren lehenengo aldia da; entzunda neukan sekulako giroa egoten dela, baina ez nuen uste horrenbesterako izango zenik. Herritarrengandik jasotako berotasuna ere bikaina izan da".

**"Uste du altruismoa dela Mundumiraren hitz klabea"**

Lehenengo edizioan izan nintzen, Oñatin, eta aurten arte ezin izan naiz itzuli. Tibeteko postu bat daukagu eta Mundumira aukera bikaina da beste jende batek egiten duen lan solidarioa ezagutzeko. Hemen, gainera, kontua ez da salmenta onak egitea; garrantzitsuagoa da zure lana ezagutzea ematea".

**"Mundumirara natorren lehen aldia da eta itzela da"**

"Irunen bizi naiz eta Donostiako liburutegian Mundumiraren gaineko panfleto bat ikusi nuen. Oso interesgarria irudi zitzaidan eta hemen nago, lagun batzuekin. Furgonetan etorri gara eta bertan egingo dugu lo. Gehien gustatu zaidana janaria izan da, zapore desberdinak. Baina, hala ere, taloa da gusturen jan dudana".

**"Mundu guztitik etorritako jendea ezagutu dezakezu"**

"Bergaran ezagutu nuen Mundumira festa, baina oso denbora gutxi egon nintzen. Esan daiteke, aurtengoa lehenengo aldia dela. Oso jai polita iruditzen zait; mundu osoko kulturak, musika eta artisautza ezagutzeko aukera ezin hobea da. Giroa ere bikaina, batez ere, gauez eta janariari dagokionez kebab-a dut gustuko".

**"Debagoienean ezin da kus-kusa aste bukaerero jan"**

"Bergaran eta Oñatin ere izan nintzen. Askotan gustatzen zait festa hau. Bergararra izan arren, kanpoan bizi naiz eta lagunekin elkartzeko aitzakia ezin hobea da Mundumira. Kultura desberdinaren nahasketa hori da gehien gustatzen zaidana eta baita janaria ere. Egia esateko, kus-kusa jatera etorri gara gu."

**NON:** Elgetako Espaloia antzokian.  
**EGUNA:** Zapatua, maiatzak 23.  
**ESTILOA:** Rocka, noisea eta beste.  
**IRAUPENA:** Ia hiru ordu.

**MAITE ZUBIATE > ELGETA**

Pentsatzeko zen Mundumirako jende uholdea. Jaia zegoen Eskoriatzan eta autobusak bertaraino, eta doako kontzertua, soinu watio asko eta izen ezaguna kartelean... Debagoienean badugu maniatxo bat eta da kultura ekitaldi asko egun berean antolatzearena. Horrek pentsarazten zuen Elgetara igotzea ez zela izango erraza, baina bai zera!

Jendartean edadekoak, Ama Say eta Deabruak Teilatuetan sortu zeneko hartan ere ikusi zituztenak gehien-gehienak.

Deabruak Teilatuetan izan zen lehenengoa eta gaztetu gintzuten. 1973 kantuarekin zabaldutzen 15 kantutik gora eskaintzeko. Lekua hartzeko behar izan zuten hiru kantu, baina ez ziren amore emateko jaio. Aritz abeslariaren elektrizitatea kutsakorrada, Gibsonaren soinuak belarriak goxatzen ditu eta baxua zein bateriak serio demonio daramate pisua. Kantu bat bestearren atzean arnasarako denbora barik. Azken diskoarekin erakutsi ziguten heldutasun puntuoa, amorrutz zein ukitu lirikoarekin abestu zuten. Disfrutatu, transmititu egiten dute eta entzuleok eskerdu. Ahotsak eta kantarien jarretek harrapatu gintuen 1998an utzi zuten moduan. *Chapeau!*

**AMA SAY, BERE ONENEAN**

Ama Sayren bueltako seigarren kontzertua Espaloikoa. Bergarako gaztetxean jasotako zapore ona-



Ama Say Bizkaiko talde indartsua Espaloiko agertokian.

JOSETXO ARANTZABAL

**MUSIKA > DEABRUAK TEILATUETAN ETA AMA SAY**

## Musikazaleendako gaua

rekin zetozentzera Deabruakeko lagunekin jotzeko gogoz. Lastraren Moog sintonizatzileak sortu zuen kontzertu hasierako atmosfera, eta bitxia benetan bi gitarren jokoak. Soinu mahaian zuen lekuak Xanperi utzi eta presentzia du kantu gehienetan. Bozgorailueta-

tik erritmo aldaketa bortitzak, gitarra distorsionatuak eta melodia itsaskorrik sarri. Hori dena, baina, isiltasunarekin apainduta, talde askok uste dutenaren kontra ez dago-eta taldeak guztiak batera eta geratu barik jotzen aritu beharrik, ordu eta edian. Mun-

dua ez dago beltzez eta kortxeaz bakarrik osatua.

Dozenatik gora pedalekin Txabi bere Fenderrari eragiten. Kuriosoa sortzen dituen soinu ezberdin piloa. Ibon kontzertuan sartuta, taula-animali bihurtuta. Kantuak gaur idatzita baleude

moduko prezisioarekin joz Gonzal bateriak, eta Julio mastilean linea berriak erakusten. Taula ondoan Karlos, gitarra apala jotzen zuena, dantzari. Bi taldeon lana musikazaleendako da bereziki, jende gehiago zaletzeko zain.

**MUSIKA > NASTA BORRASTE, SKOVERS ETA DIRTY ACOUSTIC BROTHERS**

## Harrera eskasa ondo pasatzeko itzulerari



Saxoak eta tronpetak Naste Borrasteren emanaldia ezin hobeto jantzi zuten.

JOSETXO ARANTZABAL

**NON: Arrasateko 3.60 aretoan.**

**EGUNA:** Egubakoitzta, maiatzak 22.

**ESTILOA:** Punk, rock, ska, oi!

**IRAUPENA:** Lau ordu inguru.

**JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE**

Itzulerako bigarren geldialdia egin zuen Naste Borrastek egubakoitzean Arrasateko 3.60 aretoan. 80ko hamarkadan jaio ziren, Rock Radical Vasco fenomenoren inguruan. Ska ukitu nabarmenak dituen rock talde mitikoa-punk, oi! eta hardcore doinuak ere entzun daitezke euren kantuetan-agertokietara buelta-tea erabaki du, 17 urteren ondoren. Zergatik itzuli diren? Azkar asko erantzun zioten galderari 3.60 aretoko aldagelan, agertokira igo aurretik: "Ondo pasatzeko, garai haietara bueltatzeko. Azken finean, gauzak ez dira hainbeste aldatu, gure hitzen mezuk ez dira zaharkitu". Eta behin taula gainean esandakoa berretsi egin

zuten. Erdi hutsik zegoen aretoan jarrera ezin hobea erakutsi zuen boskote moduan bueltatu den talde bilbotarrak, hamarka-

da bi dituzten ereserkiak sentimendu osoz tauralatzu.


Denborak ez du barkatzen, baina uintasunez itzuli dira.

Musika aldetik ere emanaldi dui-na eskaini zuten, baina publikoaren erantzuna ez zen taldeakideen inplikazioaren adinakoa izan.

**AURRETIK, BERTSIOAK NAGUSI**

Naste Borraste azkena izan zen agertokira igotzen. Aurretik, baina, Arrasateko Dirty Acoustic Covers eta Eskoriatza eta Arrasate Skovers taldeek jo zuten. Gezurra badirudi ere, jende gehiago egon zen bi talde horien kontzertuan, Naste Borraste ikus-ten baino. Argi geratu zen: talde beteranoaren dako Arrasate ez da Bilbo. Ibarreko talde biek denetariko bertsioak jo zituzten.

Izotza apurtzen lehena Dirty Acoustic Covers talde jaio berria izan zen. Boskote arrasatearra Enboskada eta Ardi Galduak taldeko kideek osatzen dute eta atzerriko taldeen bertsioak jo zituzten bereziki, era akustikoan. Emanaldiaren puntu gorena heldu zen agertokiak utzi berri dituen Enboskadarren Ez zaitugu baztertuko kantuaren bertsio akustikoarekin. Bestalde, Skovers taldeak saio txukuna eskaini zuen. Emanaldi heldua, Zubia anaia berezko umore ukituaz jantzia.



# iragarkilaburrak.com

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** 84 metro koadroko etxebizitza salgai. Hiru logela, bi bainugela, egongela, sukaldea eta balkoia. Hirugarren solairua, igogailuarekin. Garajea eta trasteleku. 665 73 39 55

**Arbizu.** 94 metro karratuko. 4 logela, komuna, sukaldea, egongela eta kamarotea. Bajeratik pisura pasatu daiteke. Interesatuek deitu. 948 46 09 08ra.

**Aretxabaleta.** 72 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Aukera ona. 659 64 67 38

**Arrasate.** Etxebizitza salgai Erguín kalean. Hiru logela, egongela, sukaldea eta komuna. 606 86 71 97

**Bergara.** 80 metro koadroko etxebizitza salgai Koldo Eleizaldean. Hiru logela, sukaldea, jangela-egongela, bi komun, trasteleku eta garajea. Oso eguzkitua. Aukera ona. 600 90 45 58

**Lasarte-Oria.** Pisua saltzen da Lasarte-Oriar. Erdialdean, kanpora ematen duen eta berriutta. 2 gela, sukaldea eta egongela. 260.000 euro. Harremetarako telefono zenbakia, 626 56 89.

**Marieta.** 200 metro koadroko etxe bakarra. 5 logela, 37 metro koadroko egonela beheko suarekin. 3 komun eta sukalde bat. Garajea bi autorendako eta 856 metro koadroko kolorategia (urez-tatze automatik arekin). Aukera ona. 628 45 09 62 edo 616 96 99 20

**Oñati.** 70 metro koadroko etxebizitza salgai Kale Zaharrean. 6 urteko erakin berria, igogailuarekin. Bi logela, sukaldea, egongela, komuna eta trasteleku, argipatioan. 652 70 12 49

**Oñati.** Etxebizitza salgai Bidebarrieta kalean, 2002ko eraikinena. Bi logela, sukaldea, bainua eta egongela. Guzira 68 metro koadro. Gainera 10 metroko terraza toldoarekin etxebizitzaren atzealdean. 20 metroko garaje itxia. 617 20 60 06

**San Martin Unx.** Urbanizazioa primituan dagoen lursaila eta bungalowa saltzen dut, urbanizazioan igerilekuak, saskibalioa, txokoa eta abar. 943 11 73 43

**Zaldibia.** Etxea salgai Zaldibian, garajearekin. Harremetarako: 620 54 56 29 eta 676 80 44 64.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan San Andresen, ikasleentzat. 629 42 26 54

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan unibertsitate ondoren. Hiru logela, Jantzia. Igogailuarekin. 605 75 54 52

**Bergara.** Etxebizitza erdigunean. Etxebizitza osoa edo gela. Hiru logela, bi bainugela, egongela eta sukaldea. Jantzia. Igogailuarekin. Egorea onean. www.euskalnet.net/aguirre 630 60 47 75 edo 943 79 51 70

**Nafarroa.** Nafarroan Bortzirietan Igantzi herrian etxe zahar berritua. 150 m2 Herri lasia, igerilekuak, frontoia, hondartzak 20kmara. Etxeak 3 gela ditu, hauetatik bi ohe handirekin ta gehigarrir bat haur batentzat, bestek bi ohe titki, sala, sukaldea, 2 komun eta patio txiki bat. Apropoia umeentzat, Astea 450 euro eta asteburua 200 euro.

